



berpiztu

EUSKADIKO EKONOMIA ETA ENPLEGUA
SUSPERTZEKO PROGRAMA (2020-2024)

*Berpiztu 2021 programaren emaitzen eta
Berpiztu 2022 programaren
aurreikuspenaren txostena*

***Kontseilu Errektorea
2022ko martxoak 22***



**Euskadiko ekonomia eta
enplegua suspertzeko
Programa**

www.irekia.euskadi.eus/berpiztu

*BEHAR DENA EGINGO DUGU AHALIK
ETA ENPLEGU GEHIEN
MANTENTZEKO ETA GALDUTAKO
ENPLEGU GUZTIA BERRESKURATZEKO*

(Lehendakaria. Mahai Sozioekonomikoa, 2020/05/27)



Aurkibidea

1. Berpiztu Programa (2020-2024)	4
2. 2021ean exekutatuakoaren balantze orokorra	13
3. 2022ko aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	21
4. 2020-2022 aldiaren aurrerapen orokorra	26

ERANSKINAK

1. eranskina. Berpiztu 2021: aurrekontuaren exekuzioa eta emaitzak	30
2. eranskina. Berpiztu 2022: aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena	61

ONDORIOAK	83
------------------	-----------





1.

Berpiztu Programa (2020-2024)




EAEko erakundeen artean partekatutako erantzun globala

Erakundearteko lankidetzeta eta koordinazioa inoiz baino garrantzitsuagoak dira une hauetan, COVID-19aren pandemiaren ondorioek eragin duten egoera konplexu eta zailari aurre egiteko. Izan ere, larrialdi-egoera eragin du osasungintzan, enpresetan eta pertsonengan; beraz, zalantzan jarri dira EAEko gizartearen ongizatea eta bizi-kalitatea.

Testuinguru horretan, 2020ko irailaren 29an, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek programa baten oinarriak ezarri zituzten, ekonomia eta enplegua elkarrekin sustatze aldera.

Partekatutako oinarri horien gainean, **Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Berpiztu Programa onartu zuen Eusko Jaurlaritzak**, 2020ko azaroaren 3ko gobernu-kontseiluan, foru-aldundien eta eragile ekonomiko eta sozialen kontraste- eta ekarpen-prozesu baten ondoren.






[Iturria: Bepiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



Aurre egin beharreko 3 trantsizio global handi

COVID-19ak eragindako krisia nazioarteko testuinguruan sortu da, eta, bertan, megajoera batzuk antzematen dira. Megajoera horiek, desagertzetik urrun, gero eta nabarmenagoak dira, eta erronka eragiten dute bai maila globalean bai gure errealitatean. Hala, **Euskadik megajoera horiek trantsizio teknologiko-digital, energetiko-ingurumeneko eta sanitario-sozialaren hirukotean** laburbiltzen ditu, herrien, negozioen, industrien, gizarteen eta pertsonen etorkizuna eraldatzeko gaitasuna dutela kontuan hartuta. Megajoera horiek, era berean, aukera ona izan daitezke enplegua sortzeko, eta, horretarako, prestakuntza egokia duten pertsonak eduki behar ditugu.


 Euskadi Digitala	 Euskadi Berdea	 Euskadi Inklusiboa
TRANSIZIO TEKNOLOGIKO-DIGITALA	TRANSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKOA	TRANSICIÓN SOCIAL Y SANITARIA
Digitalizazioa.	Neutraltasun klimatikoa.	Osasun-sistema eta arrisku pandemikoak.
Adimen artifiziala eta Big Data.	Energia-sistemaren deskarbonizazioa.	Demografia eta zahartze osasuntsua.
Teknologia, herritarren zerbitzura.	Baliabideen eta energiaren erabilera efizientea –ekonomia zirkularra–	Migrazioa.
Automatizazioa.	Mugikortasun jasangarria eta adimenduna.	Genero-berdintasuna.
Zibersegurtasuna.	Bidezko trantsizio energetikoa.	Zainketa-eredu berriak.
Bidezko ekonomia digital eta lehiakorren sustapena.	From farm to fork.	Gizarte- eta lurralde-kohesioa.

[Iturria: Berpiztu. Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)

Next Generation EU tresna europarrarekin bat datorren programa

Next Generation EU funts europarrak erreferentzia-esparru globala ezartzen du baliabide eta ahalegin publiko eta pribatuak Europa ekologiko, digital eta erresilientea eraikitzea bideratzeko, gizarte- eta lurralde-kohesioa indartuko dituen hazkunde jasangarri eta integratzailearen bidez.

Euskadik ekonomia eta enplegua suspertzeko Programaren definiziorako oinarri gisa partekatzen eta bereganatzen ditu orientazio hauek, eta bere estrategiako ardatzen eta suspertze-tresna europarraren arteko bateratzea ezartzen du. Horrenbestez, ekonomia indarberritzeko ardatzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren filosofia eta funtsa txertatzen ditu, eta, bestalde, Enplegua Sortzeko Ardatzak gizarte- eta lurralde-kohesiorako REACT-EU Programaren dimentsio handiak jorratzen ditu.



[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



2030erako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren programa bat

Euskadik bere gain hartu du garapen jasangarrirako helburuekin (GJH) bat egiteko konpromisoa, eta Euskadi Basque Country 2030 Agendan xertatu du. Hauek dira estrategia honekin zerikusi handiena duten garapen jasangarrirako helburuak:

5. Genero-berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia irisgarria eta ez-kutsagarria
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdineriak murriztea
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza

Garapen jasangarrirako helburuetan, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren esparruan, 41 xede, 25 planifikazio-tresna, 10 ekimen legegile, 39 konpromiso ez ezik, 21 adierazlez osatutako aginte-taula bat ere sartzen da.

Gainera, 3 trantsizioekin oso lotuta dauden GJHak dira:

- Trantsizio teknologiko-digitala: GJH8 eta GJH9
- Trantsizio energetiko-ingurumenekoa: GJH7, GJH8, GJH11, GJH12 eta GJH13
- Trantsizio sozial eta sanitarioa: GJH8 eta GJH10



Enplegua eta ekonomia suspertzeko Programa, 10 konpromisorekin

Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak helburu zehatzak planteatzen ditu, **Euskadiko enpleguarekin, susperraldi ekonomikoarekin eta erresilientziarekin lotuta, eta** Next Generation EU Funtzaren esparruan egindako **gomendio europarrekin bat**. Hauek dira, zehatz-mehatz, helburuak:

1 Inbertsio publikoarekiko konpromisoa: 13.250 milioi euroko ahalegin publikoa egitea, ekonomia suspertzeko eta enplegua dinamizatzeko.

2 Enpleguarekiko konpromisoa: langabezia-tasa % 10etik behera kokatzea eta 130.000 enplegu dinamizatzea.

3 Gazteriarekiko konpromisoa: lehen lan-esperientzia eskaintzea 25.000 gazte baino gehiagori, hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programetan, kontratazio-konpromisoa duen prestakuntzan, enplegurako prestakuntza duela, gazte-ekintzailatzen eta nazioarteko espezializazioan.

4 Enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa: gizonen eta emakumeen artean soldata-arrakala murrizteko, zaintza-eredu arduratsu berriak garatzeko, lana eta familia uztartzeko eta kontratazioan iruzurra jazartzeko programak garatzea.

5 I+G+Barekiko konpromisoa: inbertsio publikoa urteko batezbestekoan % 6 handitzeko lan egitea, Euskadi berrikuntza gune izan dadin Europar eta trantsizio globalei aukera moduan egin dakien aurre.

6 Europako estrategiarekiko konpromisoa: Europar Batasunak ezarritako eraldaketa-ardatz nagusiekin bat, Euskadi digitalagoa, Euskadi berdeagoa eta Euskadi inklusiboagoa eraikitzea.

7 Garapen jasangarrirako helburuekiko konpromisoa: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin, erronka teknologikoekin eta erronka sozialekin zuzenean lotutako garapen jasangarrirako helburuei erantzuna ematea. Ingurumen-erronkek ere funtsezko zeregina dute energia berriztagarrietarako trantsizioa bizkortzeko, hiri-birgaitze energetikoa lortzeko energia-efizientziako irizpideekin eta mugikortasun jasangarria eskuratzeko, tren lehentasunezko ardatz hartuta.

8 Industriarekiko konpromisoa: industria jotzen da Euskadiko ekonomia eraldatu eta berpizteko motortzat. Industria aurreratu, digitalizatu eta nazioartekotua. Industria berria, inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa.

9 Enplegu publikoarekiko konpromisoa: enplegatu publikoen finkotasuna eta administrazioaren berrikuntza sustatzea, informazioaren teknologia berriak eta digitalizazioa sartuta, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko.


10 Zerbitzu publikoak hobetzeko konpromisoa: osasun- eta hezkuntza-sistemen eraldaketa fisiko eta digitala. Osasuna, zahartzarora eta zainketak izango dira ekonomian eta enpleguan aukerak eskaintzen dituzten nitxo berriak.



Bi ardatz egituratzaile, eta zeharkako eremu bat

Ekonomia eta enplegua suspertzeko BERPIZTU Programa 2020-2024 ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko erronken gaineko erantzun integrala da, eta **bi ardatz bertikal nagusitan egituratzen da: «Ekonomia suspertzea» eta «Enplegua sortzea».** Ardatz horiek **12 jardunbidetan hedatzen dira**, eta horiek, era berean, ekonomia eta enplegua suspertzeko eta sustatzeko hainbat tresna eta neurriren erreferentzia-esparrua dira (estrategiaren aldiari zehar garatu beharrekoak). Halaber, hirugarren ardatz edo **zeharkako eremu bat ere zehazten da, «Enpleguaren kalitatea hobetzea» (Programaren hamahirugarren politika).**

Arestian aipatutako 12 politika eta 60 jarduketa-ildoetan, baita programa eta neurri guztietan ere, genero-ikuspegia txertatuko da; horrela, emakumeen eta gizonen abiapuntu eta beharrian desberdinak hartuko dira kontuan.



I. ardatza: Ekonomia suspertzea

1. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
2. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
3. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
4. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
5. Elikagaigintza
6. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

II. ardatza - Enplegua sortzea

7. Ekintzailtza. Enpresa berriak
8. Enplegurako prestakuntza
9. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
10. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
11. Enplegu Publikoaren Eskaintza
12. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Zeharkako eremua: enpleguaren kalitatea hobetzea

- Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala murriztea
- Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)
- Prebenzioa eta lan-segurtasuna areagotzea
- Lan-ikuskaritza indartzea
- Erantzunkidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea
- Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea
- Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea


[Iturria: Berpiztu, Euskadiko ekonomia eta enplegua suspertzeko Programa \(2020-2024\)](#)



13.250 milioi euroko aurrekontu-inbertsioa


Ekonomia eta enplegua suspertzeko Programak **13.250 milioi euroko (*) aurrekontu-inbertsio zenbatetsia dauka 2020-2024 aldirako**. Zenbateko horretatik 9.550 milioi euroko aurrekontua bideratuko da ekonomia suspertu eta enplegua sortzeko bi ardatz nagusietara, eta 3.700 milioi euro gehitu dira enpresentzako eta pertsona autonomoentzako abal gisa.

Aurrekontuan, 7.935 milioi horiek dira ekonomia suspertzeko ardatzerako eta 1.615 milioi euro enplegua sortzeko ardatzerako.



(*) Oharra: 2020-2024 aldirako XII. legegaldirako inbertsio-datuak dira, legegaldia hasi zenetik aintzat hartuta. Aurrekontuetan 2020ko guttizkoaren % 50 kalkulatu da.


Berpiztu Programa 2020-2024 (2020-11-03ko gobernu-kontseilua)






2.


BERPIZTU 2021 Programaren exekuzioaren balantze orokorra



2021ean AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2021ean EXEKUTATUTAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



2021eko aurrekontuaren exekuzioa

I. ARDATZA – EKONOMIA SUSPERTZEA

I. ardatzak (Ekonomia Suspertzea) 1.942 M€-ko aurrekontu-betearazpena lortu du 2021ean (emaitzen aurrerapena), eta gainditu egin du, oro har, I. ardatzean definitutako politiketarako hasieran egindako aurrekontu-aurreikuspena (% 116).

I. ARDATZEKO POLITIKAK - EKONOMIA SUSPERTZEA	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2021 (2)	2021eko betearazpena (3)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M€	637 M€	702 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	536 M€	522 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	99 M€	136 M€
4.- INDUSTRIA ETA ETEAK, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	252 M€	287 M€
5.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M€	144 M€	166 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	72 M€	129 M€
I. ARDATZA (guztizko partziala) - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M€	1.740 M€	1.942 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	650 M€	650 M€
I. ARDATZA, EKONOMIAREN SUSPERTZEA, GUZTIRA	11.635 M€	2.390 M€	2.592 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako kalkulaturako aurreikusitako aurrekontuen datuak (2020ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokion zatia barne).

2. oharra: 2021eko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean onartutako aurrekontuetatik datoz.

3. oharra: 2021eko gauzatze-zifrak bat datoz Ogasun Sailaren Gardena webean argitaratutako azken datuekin (D fasean esleitutako aurrekontuak), Sailaren kontraste batekin batera. Datu horiek aurrerapausoak dira, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira.



II. ardatzak (Enplegua sortzea) 315 M€-ko aurrekontu-betearazpena lortu du (emaitzen aurrerapena), aurreikusitako aurrekontuaren % 91, eta kalkulatu da 2021ean 33.541 lanpostu (emaitzen aurrerapena) sustatzen lagundu dutela. Enpleguan izandako inpaktuaren emaitzak aurreikusitakoak baino handiagoak dira, baina kontuan hartu behar da 2021erako hasierako kalkuluaren arabera guztizko enpleguaren inpaktuaren egozpena txikiagoa zela (% 70). Era berean, 2021eko aurreikuspenen enplegurako prestakuntza-jardueretarako zenbatetsitako laneratze-tasa (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa (% 45) baino murriztaileagoa izan da, eta azken hori aplikatu da 2021eko emaitzak kalkulatzeko.

II. ARDATZEKO POLITIKAK - ENPLEGUA	2020-2024 aurreikuspena		2021eko aurreikuspena (2)		2021eko betearazpena (3)	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILAZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	27 M€	1.820	25 M€	2.353
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (4)	342 M€	42.100	75 M€	7.102	78 M€	12.145
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK (4)	577M€	26.110	126 M€	4.404	109 M€	6.371
10.- RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZA BIRGAITZEA	406 M€	15.000	87 M€	2.530	76 M€	3.079
11.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720		2.625	--	3.988
12.- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	30 M€	4.352	27 M€	5.605
II. ARDATZA - ENPLEGUA, GUZTIRA	1.615 M€	130.520	345 M€	22.833	315 M€	33.541

1. oharra: Enplegu Publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontuen datuak Jaurlaritzaren 2021eko aurrekontuaren 210. Enplegu Planean daude oinarrituta, eta horri Renove Osasuna programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua gehitzen zaio. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenari dagokio. 2021erako aurreikusitako enplegu-datuak, hasiera batean, urte arrunt baten gaineko % 30eko beharpenarekin hartu ziren kontuan, pandemiaren balizko ondorioak aurreikuspenen sartzeko.

3. oharra: 2021eko gauzatze-zifrak bat datoz Ogasun Sailaren Gardena webean argitaratutako azken datuekin (D fasean esleitutako aurrekontuak), Sailaren kontraste batekin batera. Datu horiek aurrerapausoak dira, eta behin betiko betearazpenari buruzko datuak eskuratu ondoren berrikusi ahal izango dira. Enpleguari buruzko datu errealak aurreikusitakoak baino handiagoak izan dira, pandemiaren eraginengatik % 30eko murrizketaren aurreikuspena ez baita bete.

4. oharra: 2020-2024 hasierako aurreikuspenari aplikatutako Enplegurako Prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratze-tasa, zuhurtasun-irizpideagatik, murriztaileagoa izan zen (% 25) kudeaketa-gomendioetatik eratorritakoak baino (% 45). % 45eko laneratze-tasa hori erabili da 2021ean enpleguan izango duen eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailaren eta Lan eta Enplegu Sailaren (Lanbide) jarraibideen arabera, emaitzen benetako esperientzian oinarrituta.



2021eko beste emaitza batzuk

Enpleguak sustatzeaz gain, kalkulatzen da Berpiztu Programak **beste eragin eta emaitza batzuk** izan dituela 2021ean jarduera ekonomikoan: **1.075 enpresa berri sortu** dira (mikroETEak eta autonomo berriak barne); **I+G+b arloko 50 proiektu** sustatu eta finantzatu dira; eta **2.933 industria-enpresari** lagundu zaie modernizatzen eta hedatzen.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2021erako aurreikusitako BERPIZTU emaitzak	2021eko emaitzak (*)
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.085	1.075
Mikroekintzailletza berriak eta pertsona autonomoak	5.000	910	891
Enpresa berritzaile berriak	1.000	175	184
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	50	50
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (**)	600	50	50
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200	2.933
Nazioartekotzeko	1.500	350	279
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	350	644
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250	767
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450	293
Produktu berriak garatzeko	4.000	800	950

(*) 2021eko ETE Planaren emaitzen bidez jasotako informazioan oinarrituta kalkulatuta dira datuak. Emaitza horiek sail arduradunak igorri ditu. Mikroekintzailletza berrien kasuan, emaitzak aurreikusitako aurrekontuaren (% 98) exekuzioaren arabera kalkulatuta dira.

(**) 2020-2024rako hasierako aurreikuspenak Europako I+G+b-ko 600 proiektuetara eguneratu dira, Europako "Horizonte Europa" ikerketa-programa berriaren abiaraztean izandako atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.



Enpleguaren kalitatea hobetzea eta genero-berdintasuna

Ekonomia suspertzeari eta enplegua sortzeari buruzko ardatzek berekin dakarte inplizituki galdutako enplegua berreskuratzeko, dagoen enplegua indartzeko eta enpleguaren kalitatea hobetzeko konpromisoa; hori Berpiztu Programa osoaren zeharkako eremuan dago islatuta. Konpromiso horretatik abiatuta, 2021ean, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia onartu da, gizarte-eragileekin eta legebiltzar-taldeekin batera egindako lan-prozesu batean. Prozesu horrek kalitatezko enpleguaren aldeko itun inklusiboa proposatzen du, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialari laguntzeko. Ildo hauetan islatzen dira gauzatutako ekintza nagusiak:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

Garapen Jasangarrirako Euskadi Basque Country 2030 Agendak genero-berdintasuna ezartzen du bere konpromisoen artean, ezinbestekotzat jotzen baitu genero-ikuspegia kontuan hartzea, epe labur, ertain eta luzean hartzen diren neurriak ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen gizonentzat eta emakumeentzat. Konpromiso horrek garrantzi berezia hartu du pandemiak eragindako krisi ekonomiko eta sozialaren testuinguruan, eta genero-ikuspegia eta programak hainbat politikatan txertatzeari balioa ematean islatu da. Berdintasun-planak negoziazio kolektiboko tresna bat dira dimentsio hori errazteko 100 langile baino gehiagoko enpresetan; gainera, horiek REGCON erregistroan erregistratzen eta gordailatzen dira, edukian indarrean dagoen legeria betetzen dela kontrolatzeko. Era berean, Berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako Itun Sozial eta Herritarraren lehen proiektua aurkeztu da Euskadin.

Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea

Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren 2021eko Lan Plana betez, eta Genero Berdintasuneko taldean lan eginda, 2021eko irailaren 14ko akordioa lortu zen enpresetan berdintasun-planak egin, negoziatu eta, hala badagokio, adosteko ardura duten berdintasun-batzordeak trebatu eta prestatzeko. Gainera, bi jardunaldi antolatu dira negoziazio kolektiboko berdintasunari buruz (urriak 24) eta Lan Ikuskaritzari buruz, soldata-arrakalaren aurkako tresna gisa (azaroak 27), eta "balio bereko lana" ri buruzko liburua berrargitaratu da. Bestalde, errealtate horren ikusgarritasuna indartu nahi izan da, besteak beste, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egindako jardunaldien bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko soldata-arrakalari buruzko txostena aurkezteko. Horren arabera, soldata-arrakala % 19,5ekoa da (2015ean baino 1,7 puntu gutxiago); eta Nazio Batuek ezarritako Emakumeen eta Gizonen Soldata Berdintasunaren Nazioarteko Eguna (irailaren 18a).

Prekaritatea murriztea (aldi baterako kontratuak eta lanaldi partzialekoak)

Lan Ikuskaritzak funtsezko zeregina izaten jarraitu du, lan-legeria betetzen dela bermatzeko egindako ikuskapen-kanpainak zabalduz. Iruzuraren aurka Borrokatzeko Erremintaren erabilera areagotzeko, Lan Ministerioarekin lankidetzan, lege-iruzurrean sinatutako aldi baterako kontratuak berrikustea eta erregularizatzea erraztu du, 16.500 kontratu bihurtuz. Laneko Iruzuraren Postontziak martxan jarraitu du; tresna horrek aukera ematen die herritarrei lan-araudiaren, Gizarte Segurantzako araudiaren edo laneko arriskuen prebentzioko araudiaren ustezko uraketatzat har daitekeen kasuen berri izanez gero, horren berri emateko lan-agintariei, era anonimoan. Haren xedeko erabiltzaile nagusiak sindikatu-ordezkaritza txikiko sektoreetako langileak dira, edo enplegatzaileen presio-ahalmena handia den sektoreetakoak.

Prebentzioa eta lan-segurtasuna areagotzea

Prebentzioa eta lan-segurtasuna indartu beharreko alderdiak izaten jarraitu dute enpleguaren kalitatearen aldeko hobekuntzan. Gertaera garrantzitsuenetako bat Laneko Segurtasun eta Osasunaren 2021-2026 aldirako Euskal Estrategia aurkeztea izan da. Estrategia hori Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu Nagusiak onartu zuen, 2021eko abenduaren 13an. Estrategiak laneko arriskuen prebentzioa hobetzen lagunduko duten eta langileen osasuna babestuko duten ekintzak garatzeko oinarriak ezartzen ditu, jartzen dituzten eronkei aurre egin ahal izateko; besteak beste, honako hauei: pandemiak eragindako arrisku psikosozialak izateko aukera gehiago, telelanaren gorakada, digitalizazioa edo robotizazioa eta adimen artifiziala. Era berean, Osalanez sustatutako prestakuntza- eta dibulgazio-ekintzak egin dira, eta informazio-sistema bat sortu da. Horren bidez, enpresek, haien prebentzio-zerbitzuen bitartez, Osalani jakinarazten diote langileek zer arrisku dituzten, eta, gainera, ustez lanarekin zerikusia duten osasunerako kalteen berri ematen diote. Gainera, laneko segurtasun- eta osasun-ikuskatzaileordeen kidegoa indartu da, lan-arriskuen prebentzioan espezializatutako ikuskaritzaren kidegoa. Izan ere, Lan Ikuskaritzak 9.058 jarduketa egin ditu arlo horretan, eta, ondorioz, 396 arau-hauste-akta eta 1.342 errekerimendu egin dira.



Lan-ikuskaritza indartzea

Lan Ikuskaritza indartu egin da Ikuskaritza Kidegoko 7 plaza sortuz, eta, horri esker, berdintasunerako unitate espezifikokoak finkatu dira. 2021ean 15.132 jarduketa egin dira, eta, horien ondorioz, 898 arau-hauste akta eta 2.926 errekerimendu egin dira. Gainera, 33.816 kontratu berrikusi dira kontratazioan iruzurren bat atzemateko. Ildo beretik, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako kanpainak indartu dira enpresetan, eta 100 langile baino gehiagoko enpresetan berdintasun-planak kontrolatzeko kanpaina berri bat hasi da; gai horrekin zuzenean lotutako 170 jarduera egin dira.

Erantzunkidetasuna eta lanaren eta familiaren kontziliazioa sustatzea.

Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren aurreikuspenak aplikatzen jarraitu da. Horretarako, lehendik dauden kontziliazio-programak indartu dira. Horrez gain, «Gurasotasuna» izeneko gurasotasun positiboko programa indartu da, eremu sozialean, hezkuntzakoan, sanitarioan eta judizialean familiekin lanean diharduten profesionalei zuzendua dagoena, besteak beste. Gainera, zabalkunde- eta ikusgarritasun-lana egin da zenbait jardunaldi eta ekintza espezifikoren bidez, hala nola Emakumeen Nazioarteko Eguneko (martxoak 8) kanpainaren bidez. Emakundek antolatu du 2021eko kanpaina, lelo honen pean: «Nork zaintzen du? Egin dezagun ikusgai. Egin dezagun dagokiguna». Horrela, zaintza-lanen ikusgaitasuna nabarmendu nahi da, baita zaintza-lan horiek gizonen, emakumeen, erakundeen eta gizarte osoaren artean banatzeko beharra ere.

Enpresa-eredu inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantz eboluzionatzea.

Lankidetzeta eta ekonomia sozialeko ereduak sustatzen jarraitu da, hainbat ildo babestuta: ekonomia sozialeko enpresetan laguntza tekniko ematea; ekintzailtzeta sustatzea; planifikatutako lurralde-sustapena eta ekonomia sozialeko enpresak sendotzea; enpresen arteko lankidetzeta sustatzea; ekonomia sozialean trebatzeko ekintzak; bazkideak ekonomia sozialeko enpresetan sartzeta; ekonomia sozialeko erakundeak eta elkarte-egiturak finkatzea; eta enpresetan Enpresaren Gizarte Erantzukizuna hedatzea eta ezartzea. Bestalde, enpresa inklusiboagoen eta parte-hartzaileagoen ereduak zabaltzeko, hausnartzeko eta ikusgai jartzeko ekintzak gauzatu dira ASLEekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan.

Elkarrizketa soziala eta lan-harremanen esparru autonomoa bultzatzea.

Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak lanak bete ditu 2021erako Lan Planean, Gizarte Politiken Lantaldea sortzea barne, aurreko urteetan sortutakoekin bat eginez (Industria, Lanbide Heziketa, Enplegua, Berdintasuna, Segurtasuna eta Laneko Osasuna). 2021ean, talde desberdinen 30 bilera deitu dira, eta 2022ko irailaren 14an, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren bileran, lehendakaria bertan zela, garrantzi bereziko 5 akordio lortu ziren: 4.0 industriarako bidezko trantsiziorako Euskal Itun Soziala, nitxo berriei eta enplegu-aukerei buruzko akordioa, urteko kotizazio-oinarriak 20.000 eurotik beherakoak dituzten langileentzako ERTEen osagarrien luzapena, eta EAEko garapen-planetarako akordioa. Berdintasun-planak garatzeari buruzko akordioa eta Kualifikazio eta Espezializazioen Euskal Sistema garatzeko akordioa. Bestalde, Euskadin ordezkariak duten erakunde sindikalen funtzionamenduari eutsi zaio, eta azpimarratzekoa da azaroaren 9ko 232/2021 Dekretua, sindikatuei eta enpresa-erakundeetara diru-laguntzak ematea arautzen duena, beren jarduera-eremuei dagozkien gaitan haiei lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.




3.

BERPIZTU 2022 Aurrekontuaren eta emaitzen aurreikuspena



2022rako AURREIKUSITAKO inbertsioen eta emaitzen laburpena



I. ARDATZAK – Ekonomia Suspertzea – 2.163 M€-ko aurrekontua aurreikusten du 2022rako, beheko taulan jasotako politiken arabera xehetasunarekin.

I. ARDATZEKO POLITIKAK - EKONOMIA SUSPERTZEA	Aurreikuspena 2020-2024 (1)	Aurreikuspena 2022 (2)
1. INBERTSIOA AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN	2.976 M€	806 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	588 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	206 M€
4.- INDUSTRIA ETA ETEAK, ZERBITZU AURRERATUAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	325 M€
5.- ELIKAGAIEN INDUSTRIA	613 M€	159 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	79 M€
I. ARDATZA (guztizko partziala) - EKONOMIA SUSPERTZEA	7.935 M€	2.163 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	650 M€
I. ARDATZA, EKONOMIA SUSPERTZEA, GUZTIRA	11.635 M€	2.813 M€

1. oharra: 2020-2024 XII. Legegintzaldirako kalkulaturako aurrekontuei buruzko datuak, 2020ko irailaren 1etik aurrera.

2. oharra: 2022ko aurrekontuen datuak Eusko Legebiltzarrean 20212ko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik datoz.

2022ko aurrekontuaren eta enplegu-inpaktuaren aurreikuspena

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

II. ardatzak (Enplegua sortzea) 397 M€-ko aurrekontua aurreikusten du 2022rako, eta, beraz, 36.880 enplegu sustatzen laguntzea aurreikusten da, beheko taulan jasotako politiken arabera xehetasunarekin.

II. ARDATZEKO POLITIKAK - ENPLEGUA	2020-2024 aurreikuspena		2022ko aurreikuspena (2)	
	Inbertsioak (M€)	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILAZIA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	38 M€	2.560
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA (3)	342 M€	42.100	82 M€	13.793
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577M€	26.110	125 M€	5.238
10.- RENOVE PROGRAMAK. ERAIKUNTZA BIRGAITZEA	406 M€	15.000	117 M€	4.261
11.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK (1)		10.720		4.065
12.- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	35 €	6.963
II. ARDATZA - ENPLEGUA, GUZTIRA	1.615 M€	130.520	397 M€	36.880

1. oharra: Enplegu Publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. Kapituluko Orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. Ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak honako txosten honetan daude oinarrituta: "Gainegiturak 210. Enplegu Plana". 2022an sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu programan egindako aurreikuspenaren oinarritzen da. Programa hori sailek berrikusi eta eguneratu dute ondoren.

3. oharra: 2020-2024 aldirako hasierako aurreikuspeneko Enplegurako Prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratze-tasa, zuhertasun-irizpideagatik, murriztaileagoa izan zen (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45). Laneratze-tasa hori (%45) erabili da 2022an enpleguan izandako eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.



2022ko beste emaitza batzuen aurreikuspena

Enpleguak sustatzeaz gain, Berpiztu programak **jarduera ekonomikoan beste eragin batzuk** ere izango dituela uste da, **eta 1.550 enpresa berri** sortzen lagunduko duela (mikroETEak eta autonomo berriak barne); **I+G+b arloko 175 proiektu** bultzatu eta finantzatuko **dituela**; eta 2.200 industria-enpresa modernizatzen eta hedatzen lagunduko duela.

ADIERAZLEAK	Aurreikusitako emaitzak 2020-2024	2022rako aurreikusitako BERPIZTU emaitzak
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	1.550
Mikroekintzailletza berriak eta pertsona autonomoak	5.000	1.300
Enpresa berritzaile berriak	1.000	250
EUROPAKO I+G+b PROIEKTUAK	600	175
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen Europako I+G+b proiektuak (*)	600	175
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	2.200
Nazioartekotzeko	1.500	350
Modernizatzeke eta hedatzeke	1.500	350
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	250
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	450
Produktu berriak garatzeko	4.000	800

Oharra: Berpiztu programaren aurreikuspenak


(*) Hasierako aurreikuspenak (2020-2024) Europako I+G+b arloko 600 proiektura eguneratu dira, Europako "Horizonte Europa" ikerketa-programa berria abian jartzeko atzerapena eta programa horretan ezarritako baldintza berriak kontuan hartuta.





4.

BERPIZTU 2020-2022 Aurrerapen orokorra



2020-2022 aldian metatutako aurrekontuaren aurrerapena

Ondoren, 2020an eta 2021ean exekutututako aurrekontuaren eta 2022an I. ardatzerako (Ekonomia suspertzea) aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen-ikuspegi orokor metatua dago adierazita.

I. ARDATZEKO (EKONOMIA SUSPERTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (M€)	2020an exekutututakoa (XII. legealdia, irailetik abendura) (1)	Exekutututakoa 2021 (1)	Exekuzio metatua 2020-2021	Aurreikuspena 2022 (2)	2020-2022 Aldirako Aurrerapen orokor metatua
1. AZPIEGITURA PUBLIKO EKONOMIKO ETA SOZIALETAN INBERTITZEA	2.976 M€	341 M€	702 M€	1.043 M€	806 M€	1.850 M€
2. IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA ERALDAKETA DIGITALA	2.512 M€	264 M€	522 M€	786 M€	588 M€	1.374 M€
3. ENERGIA- ETA INGURUMEN-TRANTSIZIOA	357 M€	39 M€	136 M€	175 M€	206 M€	381 M€
4. INDUSTRIA ETA ETE-AK, ZERBITZU AURRERATUAK, SORMEN-INDUSTRIAK ETA NAZIOARTEKOTZEA (*)	1.164 M€	236 M€	287 M€	523 M€	325 M€	848 M€
5. ELIKAGAIGINTZA	613 M€	110 M€	166 M€	276 M€	159 M€	435 M€
6. MERKATARITZA ETA TURISMOAREN ETA KULTURAREN INDUSTRIA	313 M€	25 M€	129 M€	154 M€	79 M€	232 M€
I. ARDATZA (EKONOMIA SUSPERTZEA), GUZTIRA	7.935 M€	1.015 M€	1.942 M€	2.957 M€	2.163 M€	5.120 M€
(*) ABALAK	3.700 M€	1.100 M€	650 M€	1.750 M€	650 M€	2.400 M€
I. ARDATZA (EKONOMIA SUSPERTZEA), GUZTIRA	11.635 M€	2.115 M€	2.592 M€	4.707 M€	2.813 M€	7.520 M€

1. oharra: 2020ko exekuzio-zifrak irailetik abendura bitarteko aldiari dagozkio, eta egozpena, 2020an exekutututako aurrekontu osoaren % 61i. 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021eko abenduaren 23an onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

2020-2022 aldirako aurrekontu metatuaren aurrerapena eta enpleguaren sustapena

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

Ondoren, 2020an eta 2021ean exekutututako aurrekontuaren eta 2022rako aurreikusitako aurrekontuaren aurrerapen orokor metatua eta II. ardatzerako (Enplegua sortzea) enplegua suspertzeko egindako ekarpena adierazten dira.

II. ARDATZEKO (ENPLEGUA SORTZEA) POLITIKAK	Aurreikuspena 2020-2024 (1)		2020an exekutututakoa (XII legealdia, irailetik abendura) (2)		2021an exekutututakoa (3)		Exekuzio metatua 2020-2021		Aurreikuspena 2022 (4)		Aurrerapen orokor metatua 2020-2022	
	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak (4)	Enpleguak (4)	Inbertsioak	Enpleguak
7. EKINTZAILETZA. ENPRESA BERRIAK	128 M€	10.790	15 M€	1.674	25 M€	2.353	40 M€	4.027	38 M€	2.560	78 M€	6.587
8. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	342 M€	42.100	31 M€	3.967	78 M€	12.145	109 M€	16.112	82 M€	13.793	191 M€	29.905
9. LANERATZEA. TOKIKO ETA ESQUALDEKO ENPLEGU-PLANAK	577 M€	26.110	60 M€	4.970	109 M€	6.371	169 M€	11.341	125 M€	5.238	294 M€	16.579
10. REMOVE PROGRAMAK. ERAIKINEN BIRGAIKUNTZA	406 M€	15.000	51 M€	3.225	76 M€	3.079	127 M€	6.304	117 M€	4.261	243 M€	10.565
11. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZAK		10.720	--	2.538	--	3.988	--	6.526	--	4.065	--	10.591
12. GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEKO TALKA-PLANA	162 M€	25.800	11 M€	2.519	27 M€	5.605	38 M€	8.124	35 €	6.963	74 M€	15.087
II. ARDATZA (ENPLEGUA SORTZEA), GUZTIRA	1.615 M€	130.520	168 M€	18.893	315 M€	33.541	483 M€	52.434	397 M€	36.880	880 M€	89.314

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, legealdia hasi eta lehenengo urtean egozpena eginda (2020ko iraila). Enplegu publikoaren eskaintzei dagokienez, ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

2. oharra: II. ardatzeko (Enplegua sortzea) aurrekontu-exekuzioa eta enpleguan duen eragina irailetik abendura bitartekoak dira, eta 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) aurrekontu-exekuzioaren egozpen-maila bera aplikatuta kalkulatu dira (2020ko aurrekontuaren % 61).

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datu horiek eta enpleguari buruzkoak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko datuak izatean berrikustea.

4. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira, eta sailen kontraste osagarria dute. 2022an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).



Beste emaitza metatu batzuen aurrerapena (2020-2021)

Ondoren, jarduera ekonomikoko beste inpaktu batzuen ikuspegi metatu orokorra jasotzen da (2020-2022). Horretarako, kontuan hartu dira enpresa berriak sortzea (mikroETEak eta autonomo berriak barne), I+G+Baren arloko proiektuak bultzatu eta finantzatzea eta industria-enpresei modernizatzen eta hedatzen laguntzea.

ADIERAZLEAK	2020-2024 aldian aurreikusitako emaitzak	2020ko emaitzak (XII. legealdia, irailetik abendura) (1)	2021eko emaitzak	Emaitza metatuak 2020-2021	BERPIZTU 2022 Programaren aurreikuspena (2)	Emaitza metatuak (2020-2022)
SORTUTAKO ENPRESA BERRIAK	6.000	660	1.075	52.434	1.550	3.285
Mikroekintzailletza eta autonomo berriak	5.000	545	891	8.124	1.300	2.736
Enpresa berritzaile berriak	1.000	115	184	1.735	250	549
I+G+B-AREN ARLOKO EUROPAKO PROIEKTUAK	600	97	50	1.436	175	322
Ikerketa eta berrikuntzako esparru-programen I+G+Baren arloko Europako proiektuak (3)	600	97	50	299	175	322
LAGUNDUTAKO ETE INDUSTRIALAK	10.000	1.330	2.933	147	2.200	6.463
Nazioartekotzeko	1.500	170	279	147	350	799
Modernizatzeko eta hedatzeko	1.500	214	644	4.263	350	1.208
Berrikuntza teknologikorako eta enpresa-digitalizaziorako	1.000	238	767	449	250	1.255
Berrikuntza ez-teknologikorako	2.000	231	293	858	450	974
Produktu berriak garatzeko	4.000	477	950	1.005	800	2.227

1. oharra: XII. legealdiaren hasieratik aurrerako jarduera ekonomikoko emaitzen egozpena kalkulatzeko (irailetik abendura), I. ardatzaren (Ekonomia suspertzea) exekuzio ekonomikoaren egozpen-maila bera aplikatu da (% 61, 2020ko aurrekontuan). Abiapuntuko datuak 2020ko emaitzen memorietatik hartu dira.

2. oharra: 2022rako kalkulaturako emaitzak Berpiztu Programaren aurreikuspenetakoak dira.

3. oharra: hasierako aurreikuspenak (2020-2024) eguneratu dira, eta, kontuan hartuta Europako ikerketa-programa berria, Horizon Europa, eta programa horretan ezarritako baldintza berriak atzeratu egin direla, I+G+Baren arloko Europako 600 proiektu aurreikusi dira.






1. eranskina

BERPIZTU 2021


Aurrekontuaren exekuzioaren
xehetasunak, emaitzak eta
ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

2021eko Berpiztu Programa

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
 - 2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
 - 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
 - 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
 - 5. politika. Elikagaigintza
 - 6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria
- 



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

EAE-KO GARRAIO JASANGARRIAREN 2030EKO GIDA PLANA

TRENBIDE-AZPIEGITURAK

Trenbide-azpiegituren hobekuntza aurreikusitako proiektuen garapenean islatu da. Pasaia-Irun topoaren pasagunean aurrerapenak egin dira (Donostiako aldiriko lineak eta Altza-Galtzarabordako zati berriak); Zarautzen geltoki berria egin da; Eibar-Azitain tartean trenbidea estali da; ERTMS seinaleztapen-sistema berria jarri da; Loiolako Erriberako aldageltokia egin da; Gasteizen tranbia luzatu da Zabalgaraino, eta, Bilbon, Bolueta-Atxuri zatia handitu, eta Zorrotzaurreraino luzatu da; Euskal Y-a (obrak Hernani-Astigarraga tartean; Atotxako geltoki berria, Donostian; eta Gipuzkoako tarteko tuneletako larrialdi-galeriak egokitzea), eta Bilbo hegoaldeko tren saihebidia (1. fasea, Serantes-Olabeagako tunela; eta 2. fasea, Barakaldo-Basauri).

ETXEBIZITZA-AZPIEGITURAK

2021-2023 aldirako Etxebizitza Gida Plana eta 2021-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala argitaratu dira. Horiek egiteko, partaidetza-prozesu bat gauzatu da herritarrekin. Lehentasun hauek ditu planak, besteak beste: Etxebizitzaren Legean aurrera egitea; errenta ertainak dituzten familiek alokairu irisgarriak eskura ditzaten bultzatzea; eta birgaitze integralerako laguntza handiagoak dituzten eraikin eta etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzea, EBren 2030erako eta 2050erako irizpideen arabera. Lurzoru-zuzkidurak eta inbertsioak egiten jarraitu da, alokairuko etxebizitzaren eskaintza publikoa finkatzeko eta eraikitako parkea birgaitzeko.

AZPIEGITURA HIDRAULIKOAK

Urak saneatzeko, hornitzeko eta arazteko oinarriko azpiegiturak berritzen eta hobetzen jarraitu da hainbat udalerritan, aurreikusitakoaren arabera. Azpimarratu behar da abian jarri dela Aguraingo hondakin-uren araztegia. Proiektu hori 2017-2027 aldirako Azpiegitura Hidraulikoei buruzko Esparru Akordioan zegoen sartuta.

PORTUETAKO AZPIEGITURAK

Portuetako azpiegiturak modernizatzeko planean aurreikusitako jarduketak zabaldu dira, barne hartuta irisgarritasuna eta loturak hobetzea. Jarduketa horien artean honako hauek daude: Hondarribia, Getaria, Bermeo, Ondarroa, Mutriku eta Plentziako portuetako babes-dikeak sendotzeko proiektuak idaztea, lizitazioa egitea eta/edo obrak hastea. Amaitu dira EAEko portuetako kaiak ikuskatzeko eta aztertze lanak, eta Lekeitioko, Ondarroako, Orioko eta Zumaiaiko portuak konpontzeko lanak hasi dira.

HEZKUNTZA-AZPIEGITURAK

Haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako, lanbide-heziketako eta unibertsitate-hezkuntzako ikastetxeen sarea mantentzeko eta indartzeko inbertsioak egin dira, irakaskuntza-sistemaren eraldaketan eta digitalizazioan arreta berezia jarrita. Onartu dira, besteak beste, Aldialde, Muskiz, Zumaia eta Orixeko ikastetxeak eraikitzeko gastuak eta Salburuko ikastetxearen lizitazioa.

OSASUN-AZPIEGITURAK

Ospitaleetako azpiegitura fisikoak, ekipamenduak eta instalazioak modernizatzen eta eguneratzen jarraitu da, baita osasun-sistemaren eta emandako zerbitzuen digitalizazioan aurrera egiten ere. Egindako inbertsioen artean, nabarmentzekoak dira Debagoieneko eguneko ospitalea handitzeko, Txagorritxu UOren instalazio berrietara bideratutakoa, Araba ESren pediatriako larrialdietarako gunea berrira bideratutakoa eta Aieteko osasun-zentro berria egitekoa.

KULTUR AZPIEGITURAK

Kultur zentroak eta ekipamenduak hobetzen jarraitu da, euskal ondarearen digitalizazioa eta zabalkundea ardatz hartuta. Lehentasuneko jarduketak eremuak (Orconera, Sestaoko Labe Garaia, Albaola, Erreterriko Artisten Barrutia eta Zallako Artisten Zentroa) dinamizatzeko onartutako kultur ondarea hobetzeko proiektuak ez ezik, Euskadiko Liburutegi Digitala (Euskariana) abian jartzeko proiektua ere nabarmendu behar da.



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

BESTE AZPIEGITURA BATZUK

Onartu egin da (martxoan, Bepiztu Programako Kontseilu Errektorearen aldetik) 180 milioi euroko aparteko funtsa abian jartzea, lehentasunezko jarduketa-eremuak (edo premia handiko eremuak) biziberritze aldera. Tokiko sailak eta erakundeak dagoeneko erabiltzen ari dira aparteko funtsak Enkarterrin, Ezkerraldean, Meatzaldean eta Oarsoaldean gauzatzen ari diren 25 jarduketa-proiektu zehatzetan. Era berean, Aiaraldea biziberritzeko eraturako Legebiltzarreko agerraldiaren irizpena onartu ondoren, eskualde horretan proiektu estrategiko zehatzak identifikatzeko lanak hasi dira.

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

Taula honetan, 2021ean ekonomia- eta gizarte-azpiegitura publiko berriak sustatzeko exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2021	Exekuzioa 2021
Trenbide-azpiegiturak	1.563 M€	327 M€	318 M€
Portuetako azpiegiturak	102 M€	24 M€	17 M€
Osasun-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	323 M€	73 M€	116 M€
Azpiegitura hidraulikoak	120 M€	31 M€	48 M€
Etxebizitza-azpiegiturak	285 M€	71 M€	93 M€
Hezkuntza-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	451 M€	86 M€	84 M€
Kultur azpiegiturak	132 M€	25 M€	26 M€
1. POLITIKA, GUZTIRA	2.976 M€	637 M€	702 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO PLANA: ZTBP 2030 (+ aurrekontuen hazkundearen urteko % 6)

Gobernu-kontseiluak Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana –ZTBP 2030– onartu du, Garapen Jasangarriko Helburuekin konprometitu eta Europarekin (Europa Horizonte) bat etorri. Lau ardatz ditu (bikaintasun zientifikoa; lidergo teknologiko-industrialak; berrikuntza irekia, eta talentua); hiru erronka nagusi egiten die aurre; espezializazio adimendunaren estrategian sakontzen du, eta zeharkako trazio-ekimenak sortzen ditu. Planaren aurreikuspenen arabera, 18.600 milioi euroko inbertsioa ekarriko du 10 urtean, eta urteko aurrekontuak % 6 handituko dira, I+G+Baren arloa bideratzeko. Bestalde, Euskal I+G+Ba 2021-2030 aldian Europan nazioartekotzeko estrategia argitaratu da, eta Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia onartu.

TEKNOLOGIA- ETA INDUSTRIA-LIDERGOA

Ikerketa teknologiko-industrialak hainbat deialditara bideratutako baliabideak indartu ditu, hala nola enpresa-sektoerako (Hazitek) eta ZTBESko eragileentzako (Elkartek eta Emaitek Plus) I+G proiektuetarako laguntza-programetara bideratutakoak. Horretarako, % 5 handitu du 2021eko aurrekontu-zuzkidura.

Azpiegitura zientifiko-teknologikoei laguntzeko programa berria onartu da, Azpitek 2021, Euskadin eragina duten 3 trantsizioei aurre egiteko (teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa eta sozial-sanitarioa).

Halaber, osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak indartu dira (Innosasun, Medtech eta Baliosasun programak); eresketa publiko berritzaileko ekimenei laguntza eman zaie, eta, osasunari aplikatutako bioteknologiaren arloan, I+G+Baren arloko programa-hitza bat sinatu da Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekin.

Elikaduraren arloko ikerketari dagokionez, Neiker eta Azti ikerketa-zentroen proiektuek ez ezik, nekazaritzaren, nekazaritza eta elikaduraren eta arrantzaren sektoreko I+G+Ba transferitzeko eta zabaltzeko ekimenek eta Gastrobikain eta Bioekonomia programek ere laguntza jaso dute.

TALENTUA

Talentu zientifikoa erakartzearen alde egin da, nola Ikerbasqueren bitartez hala ERC Fast Track, Research Fellows, Research Associate eta Research Professor programen bitartez. Doktorego industrialak egiteko eta ZTBESko enpresetan eta eragileen artean talentu teknologikoa sartzeko, Bikaintek programaren laguntza izan da, eta, era berean, ikertzaile gazteen prestakuntza indartu da bai Posdoc eta Predoc programen bidez baita nekazaritzaren, arrantzaren eta elikaduraren sektoreari zuzendutako IkerTalent programaren bidez ere.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko zentro teknologikoen eta ikerketa kooperatiboko zentroen karrera profesionaleko planak egin eta aurkeztu dira.

BERRIKUNTZA IREKIA

Enpresa-ehunak bere lehiakortasuna hobetzeko laguntza jaso du, bai Innobideak (Lehiabide, Kudeabide eta Pertsonak) kudeaketa aurreratuko programaren bai enpresa txikian berrikuntza sustatzeko Hazinnova programaren urteko deialdien bidez. Programa horiek ETE berritzaileen akreditazioa jaso dute; hala, enpresa berritzaile gisa aitortu dira.

Enpresen berrikuntzari eta eraldaketa digitalari laguntzen jarraitu da; esaterako, BIND 4.0 programaren bidez. Programa horren barruan, SME Connection ekimen pilotua abiarazi da.

BIKAIN TASUN ZIENTIFIKOA

Oinarritzko eta bikaintasuneko ikerketa-zentroen kategorian akreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileei laguntzeko programen bitartez (BERC), ikerketa zientifikoaren jarduera sustatu da.

Bikaintasuneko oinarritzko ikerketaren IKUR 2030 estrategia abiarazi da, sare zientifikoa indartzeko eta nazioarteko posizionamendua lortzeko neurozientzien, teknologia kuantikoen, superkonputazioaren eta adimen artifizial eta neutrionikoaren eremuetan).

Unibertsitate-ikerketari dagokionez, UPV/EHUK, Mondragon Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak programa-kontratu izan dute; halaber, euskal unibertsitate-sistemako ikertaldeeii laguntza eman zaie, bikaintasuneko ikerketa sustatzeko laguntzen deialdiaren bidez.



2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

Taula honetan, 2021ean ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzeko exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

2. politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2021	Exekuzioa 2021
Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa (*)	784 M€	159 M€	156 M€
Ikerketa teknologikoa eta industrial	1.016 M€	222 M€	247 M€
Elikaduraren ikerketa eta garapena	119 M€	26 M€	23 M€
Osasun-ikerketa (*)	265 M€	55 M€	53 M€
Berrikuntza publikoa eta Administrazio digitala	107 M€	22 M€	13 M€
Berrikuntzako Funts Estrategikoa	221 M€	52 M€	30 M€
2. POLITIKA, GUZTIRA	2.512 M€	536 M€	522 M€

(*) Unibertsitate- eta osasun-ikerketan diharduten langileen gastuak barne hartzen ditu

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

EUSKADIKO ESTRATEGIA ENERGETIKOA, INGURUMEN-ESTRATEGIA ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIA

ENERGIAREN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ERAGINKORRA

Energia-efizientziaren hobekuntza hainbat ekimenen bidez gauzatu da. Ekimen horietan, hainbat helburutara bideratutako laguntzak aurreikusi dira: eraikin publikoen parkea berritzeko prozesua azkartzea (energia-kontsumorik ia ez duten eraikinak); energia-kontsumoak kontrolatzeko eta erregistratzeko plataforma bat ezartzea, eta energia-ikuskapenak egitea.

Abian jarri dira toki-erakundeek (Gauzatu Energia) eta egoitzen sektoreak (autokontsumoari, energia-iturri berriztagarrien bidezko biltegitazeari eta sistema termiko berriztagarriei lotutako pizgarriak) energia-efizientzian eta energia berriztagarrien erabileran inbertitzeko laguntza espezifikoak.

Bestalde, hainbat ekimen gauzatu dira 2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren esparruan; horien artean, nabarmentzekoak dira ETEetan ekonomia zirkularra bultzatzeko laguntzak (ETEen programa zirkularra) eta ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko aliantza publiko-privatuaren akordioa (Basque Ecodesign Center). Azken horri dagokionez, enpresen ingurumen-aztarna neurtzeko tresna bat aurkeztu da. Era berean, Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren lehen Plana onartu da.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BULTZATZEA, TEKNOLOGIA BERRIAK INTEGRATUTA

Industrian energia-efizientziako eta energia berriztagarrietako teknologia berriak txertatzen laguntzen jarraitu da, eta energia berriztagarriak sortzeko gaitasun berrietan inbertitzeko jarduketa berritzaileak gauzatu dira (biomasa eta geotermia; autokontsumo elektrikoak; sortzen ari diren itsasoko energia-teknologia berriztagarriak; eta eguzki-teknologia termikoa).

Aurrera egin da Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurraldearen Plan Sektorialaren prestaketan.

GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAK ETA ADIMENDUNAK LEHENESTEA

Garraio publikoa sustatzeaz gain, automobil-parkean energia alternatiboak erabiltzea ere sustatu da; horrela, elektrifikazioaren eta erregai fosilen eredu alternatiboaren alde egin da. Hainbat ekimen gauzatu dira ibilgailu efizienteetan eta alternatiboetan inbertsioak egiteko, adibidez, Ibilgailuen Renove programa; eta, mugikortasun efizientea eta jasangarria sustatzeko, Moves programa (Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana).

ENERGIAREN ELEKTRIFIKAZIOA

Goi-tentsioko garraiorako eta banaketarako linea eta instalazio elektrikoak eta gasa garraiatzeko eta banatzeko sareak planifikatzen, arautzen eta gainbegiratzen jarraitu da. Bestalde, sorkuntza banatuko proiektuak egin dira, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak ezarri dira, banaketa elektriko sareak digitalizatu eta adimendun bihurtu dira, eta abar. Hidrogenoa energia-aukeratza hartzearen aldeko apustua Hidrogenoaren Euskal Estrategiaren argitalpenean islatu da.

INGURUMENA BABESTEA

Jasangarritasunarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa hainbat plangintza-tresnaren bidez islatu da. Hala, aurrera egin da Lurzorua babesteko 2030erako Estrategia eta 2030erako Ingurumen-esparru Programa berria definitzeko prozesuan. Halaber, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen 2030erako Programa onartu da, eta Euskadiko eraikuntza industrializatu jasangarriko gida aurkeztu.

NATURA-ONDAREA ZAINZEA ETA KLIMA-ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEA

2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana aurkeztu da, eta aurrera egin da tokiko eta eskualdeko energiako, natura-ondarea babesteko eta klima-ekintzako programa eta plan integratuen garapenean Udalsarea 2030 sarearen eta «Karbono gutxi isurtzen duen udalerrria/eskualdea» sailkapenaren bidez. Era berean, Basque Green Deal Gunea sortu da, Europako Itun Berdearen espiritua zabaltzeko foro izateko asmoz; eta, Euskadiko Klimaren eta Energiaren Astearen (Asteklima 2021)

barruan, «Urban Klima 2050» nazioarteko jardunaldia antolatu da.



3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

Taula honetan, 2021ean energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzeko exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2021	Exekuzioa 2021
Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkorra	86 M€	26 M€	38 M€
Teknologia berrietan oinarritutako energia berriztagarriak bultzatzea	48 M€	14 M€	21 M€
Garraio eta mugikortasun jasangarriak eta adimendunak lehenestea	81 M€	24 M€	35 M€
Ingurumena babestea	57 M€	14 M€	17 M€
Natura-ondarea zaintzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea	85 M€	21 M€	25 M€
3. POLITIKA, GUZTIRA	357 M€	99 M€	136 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulatutako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

INDUSTRIA GARATZEKO ETA NAZIOARTEKOTZEKO 2021-2024 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA (2021ean onartua)

TRANSIZIO TEKNOLOGIKOA ETA DIGITALA. BASQUE INDUSTRY 4.0

Digitalizazioaren aldeko apustuari amaiera emateko, 2025erako Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia onartu da (1.400 milioi euro ditu aldi horretarako). Era berean, enpresa-lehiakortasuna automatizatzen, digitalizatzen eta hobetzen jarraitzeko inbertsioak indartu dira, hala nola Gauzatu Industria programaren (oinarri teknologikoa duten enpresei eta/edo enpresa berritzaileei zuzendua) eta Renove Industria 4.0 programaren (4.0 industria-proiektuetarako ekipamendu aurreratua eskuratzeko programa) bidez.

Enpresek laguntza osagarria izan dute palanka teknologikoak ezartzeko; programa hauek baliatu dituzte, besteak beste: Zibersegurtasun Industrialak; Basque Industry 4.0; Industria Digitala; Adimen Artifizial Aplikatua; banda zabal ultralasterra, eta enpresaren arloko 5G teknologia.

BAIC (Basque Artificial Intelligence Center) elkarteak jarri da abian. Bertan, Jaurlaritzak parte hartzen du, adimen artifizialarekin lotutako hogeit bat enpresa eta eragile teknologikorekin batera.

ETE-EN BERRIKUNTZARAKO LAGUNTZA EMATEA

Berrikuntzan oinarritutako soluzioak gauzatzearen eta ETEetan aplikatzearen alde egiteko, laguntza-programak baliatu dira, hala nola Hazinnova (berrikuntza ez-teknologikoko proiektuetarako) eta Basque Digital Innovation Hub – Konexio (produktuen eta zerbitzuen diseinuan eta garapenean digitalizazioarekin eta jasangarritasunarekin lotutako teknologien erabilera sustatzeko).

KRISIAN DAUDEN SEKTOREAK LAGUNTZEA ETA AZPIEGITURAK INDARTZEA

Zailtasunak dituzten edo berregituratzeko beharra duten enpresei trantsizio teknologiko-digitalari eta energetiko-ingurumenekoari aurre egiten lagundu zaie, indartu, Bideratu Berria, Bideratu COVID-19 eta Lortu programen bitartez, besteak beste. Parke Industrialen eta Teknologikoen Sareak 5 eraikin berri eraikitzea eta dauden 3 eraikinak handitzea aurreikusi du 2021-2024 aldirako plan estrategikoan. Bestalde, klusterren politika indartu da, kontuan hartuta balio-kateen azterketa eta COVID-19aren krisiak horietan duen eragina.

INDUSTRIA-GARAPENA, RESHORINGA ETA FINKATZEA

Laguntza-programa batzuk indartu dira, pandemiak eragindako euskal industria-sarea indartze eta sendotze aldera. Alde batetik, Bilakatu COVID-19 programa, dibertsifikazio-prozesuekin zerikusia duten inbertsio produktiboetara bideratua, baldin eta gaitasun berriak ezartzen (negozioa, produktuak, zerbitzuak eta merkatuak) eta/edo beste eskualde batzuetara ateratako gaitasunak birlokalizatzen badira (*reshoring*). Bestalde, Bateratu programa, beste enpresa batzuekin bat egiteko eta/edo horiek xurgatzeko planak prestatzerako orduan egindako inbertsio produktiboetarako.

Era berean, enpresen kapital-egitura sendotzearen alde egin da, Finkatuz funtsa, Arrisku Kapitalaren Funtsa eta beste tresna batzuk baliatuta, eta tokiko balio-kateak indartzen dituzten trakzio-proiektuetan inbertitu da.

Azkenik, nabarmendu behar da enpresa txiki eta ertainei finantza-laguntza emateko programa berri bat onartu dela, Elkargiren bitartez, pandemiaren eragin ekonomikoari erantzuteko.

ZERBITZU AURRERATUAK ETA SORMEN-INDUSTRIAK

Industrian zerbitzu aurreratuak (ingeniaritzak, teknologia, finantza-zerbitzuen marketina) txertatzen jarraitu da, lehiakortasuna hobetzeko tresna den heinean, eta sormen-industrien balio erantsia sustatzen (bideojokoak, eduki digitalak, diseinua, etab.).

HEALTH KLUSTERRA INDARTZEA

Euskadiko osasun-sektorearen garapenarekiko konpromisoa osasun-sektorearen eta teknologia- eta enpresa-sektorearen arteko lankidetzan indartzean islatu da. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila Basque Health Clusterreko ohorezko bazkide da orain.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

INDUSTRIA GARATZEKO ETA NAZIOARTEKOTZEKO 2021-2024 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA (2021ean onartua)

NAZIOARTEKOTZEARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK INDARTZEA

Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren jardura indartu da. Alde batetik, bere zerbitzuak hobetzera (balio erantsiko zerbitzuen katalogo berri bat abian jartzea eta zerbitzuak emateko prozesuak estandarizatzea) bideratutako ekintzak baliatu dira, eta, bestetik, kanpoko sareari laguntzera (kanpoan bulego berriak irekitzea) bideratutakoak. Horrez gain, Basquexport plataforma abiarazi da, enpresa esportatzaileen katalogo berri gisa.

Bestalde, adimen lehiakorreko unitatea hobetzeko ekintzak egin dira: nazioarteko zaintza- eta alerta-sistema bat sortu da, nazioarteko erakunde erreferenteekin egindako aliantza estrategikoetan oinarrituta. Era berean, BasqueTrade & Investment erakundearen eta merkataritza-ganberen arteko lankidetzak bultzatu dira, ETEak nazioartekotzen laguntzeari dagokionez; horretarako, jardunaldiak eta topaketak antolatu dira.

Enpresak nazioartekotzeko prozesuak hainbat laguntza izan dituzte, garapen jasangarriaren printzipioa sustatzeko asmoz; beste programa batzuen artean, Zabaldu, Sakondu, Elkartu eta Nazioarteko Gauzatu programak baliatu dira.

KANPOKO INBERTSIO PUBLIKOKO PROIEKTU PILOTUAK

Hainbat erakunde aldeaniztunek Euskal Autonomia Erkidegoak inbertsio publikoko nazioarteko proiektuetan parte har dezan bultzatu dute; horretarako, besteak beste, Pilotu programa baliatu dute. Ekimen horrek laguntza ez-itzulgarriak aurreikusi ditu nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuen diseinuan eta garapenean parte hartu nahi duten eta nazioartekotze-prozesuan garapen jasangarria sustatu nahi duten euskal enpresentzat.

BASQUE COUNTRY MARKA SENDOTZEA

Euskadi Basque Country marka sustatzen jarraitu da, atzerrian dauden euskal enpresei aintzatespena eta ospea emateko tresna gisa, hala, haien nazioarteko proiektuak hobetzeko. Nazioarteko jardunaldi eta misioetan eta argitalpen espezializatueta markaren ikusgarritasuna eta erabilera hobetzera bideratuta egon dira ekimen nagusiak. Ekimen garrantzitsuenen artean, honako hauek aipatu behar dira: Brexitaren ondoren euskal enpresei emandako laguntzak ezagutzera emateko topaketa digitala; euskal filialek Mexikon eta Estatu Batuetan dituzten gaitasunak jakitera emateko bilerak; eta euskal enpresentzat eremu aeroespazialean nazioarteko aukerak identifikatzeko eta lankidetzan aurrera egiteko jardunaldiak.

TALENTUA GARATZEA ETA ERAKARTZEA

Nazioarteko gaien inguruko gaikuntza eta prestakuntza jasotzea funtsezkoa da talentua garatzeko eta erakartzeko. Ikuspegi horrekin, eta pandemia dela eta deialdia egin gabe urtebete igaro ondoren, Beint eta Global Training nazioartekotze-beken programei ekin zaie berriro, eta zenbait berrikuntza sartu dira, hala nola, Alumni Beint izeneko plataforma abian jartzea (nazioartekotzean esperientzia duten profesionalen sare bat harremanetan mantentzeko).

Era berean, kanpoko sarearen gaikuntza hobetzen jarraitu da, euskal talentua atzerrian prestatzeari eta nazioarteko talentua erakartzeari dagokionez buru izateko.

NAZIOARTEKO BATERATZEAK ETA XURGAPENAK BULTZATZEA

Merkatu-adimeneko tresnek euskal enpresa-taldeak hazteko eta finkatzeko aukerak identifikatzen lagundu dute, nazioarteko bateratzeekin eta xurgapenekin lotutako inbertsioak babestu baitituzte.



4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Taula honetan, 2021ean industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea sustatzeko exekutututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2021	Exekuzioa 2021
Industria-garapena: Basque Industry 4.0, ETEei laguntzea, <i>reshoringa</i> eta sendotzea, krisian dauden enpresei laguntzea, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea.	1.004 M€	86 M€	142 M€
Enpresentzako maileguren finantza-kostua murriztea (COVID-19)	53 M€	32 M€	17 M€
Enpresak nazioartekotzea	107 M€	134 M€	128 M€
4. POLITIKA, GUZTIRA	1.164 M€	252 M€	287 M€

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

5. politika. Elikagaigintza

NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAREN ERAKUNDEARTEKO PLAN ESTRATEGIKOA. EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

BELAUNALDI-ERRELEBOA

Nekazaritza-sektorearen belaunaldi-erreleboa eta gaztetzea babesten jarraitu da, esaterako, Gaztenek programa hobetuta, eta enpresa-jarduerari lotuago dagoen eredu ekintzailea sustatuta.

DIBERTSIFIKAZIO EKONOMIKOA

Landa eta itsasertzeko eremuetarako inbertsioa bereziki garrantzitsua izan da 2021ean, eta nabarmen handitu dira baliabide publikoak, erakundeen inbertsio-ahaleginarekin batera. Enpresen dinamismoa bultzatu da, ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak hobetzeko proiektuak babestuta (Leader, Erein eta Itsaspen) eta balio-kate berriak bultzatuta, haien bidez garatzeko aukerak dituzten nitxoetan (bioekonomia, turismoa, osasuna eta ongizatea, teknologia berriak, etab.).

Bestalde, nekazaritza- eta elikadura-sektorean proiektu berritzaileak bilatzeko bi programa jarri dira abian: EIT Food Accelerator Network eta Seedbed inkubagailua.

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ETA JASANGARRIA

Nekazaritza ekologiko eta jasangarrirako trantsizioak ekoizpen ekologiko ziurtaturako laguntzen deialdi bat izan du, eta Euskadin ekoiztiko elikagai ekologikoak identifikatzen duen «Ekolurra» bereizgarria aurkeztu da.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Lehen sektorearen eta elikagaigintzaren lehiakortasuna hobetzeko prozesuak laguntza-programak izan ditu sektorea egituratzeko eta balio-katearen maila desberdinen arteko lankidetzarako, masa kritikoa irabazteko eta nazioartekotzeko eta salmenta-kanalak dibertsifikatzeko (esaterako, Lehiatu Berria eta Lehiatu Ardoa).

Ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako sektorearen digitalizazioa izan da beste apustu handietako bat. Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) monitorizazioaren esparruan, ArgazkiPAC aplikazioa jarri da abian, laguntzak kudeatzeko orduan nekazariekin komunikatzeko eredu berri gisa.

Bestalde, GOe (Gastronomy Open Ecosystem) proiektua jarri da martxan, elikagaien ekintzailetzara bideratutako prestakuntza-zentro gisa. Ekimen hori The Food Global Ecosystem proiektu publiko-pribatuaren barruan kokatu da, Euskadi erreferentziazko ekosistema gastronomiko gisa posizionatzeko asmoz.

«Baserritik mahaira» lerroarekin jarraitu da, elikagaien segurtasuna bermatze aldera; hain zuzen ere, ikuskapena arautu eta indartu da, produktuen trazabilitate osoa lortzeko. Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana (2021-2025) eguneratu da, eta animalien ongizatearen ziurtagiria lortzen lagundu.

Kontratazio publikoko prozesuetan jasangarritasuna eta tokiko ekoizpenaren aldeko laguntza ardatz duten klausulak ere sartu dira.

ARRANTZAKO EUROPAKO FUNTSAREN PROGRAMA OPERATIBOA

BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA TALENTUA ERAKARTZEA

Itsas langileen eta itsasoko eta arrantzako prestakuntza-zentroyen gaitasuna indartu da, arrantzaren sektoreko aginte-postu kualifikatuetara talentua erakartzeko edo atxikitzeko; esaterako, Itsasoratu programaren bidez.

Era berean, arrantza-sektorean, belaunaldi-erreleboak laguntza espezifikoak izan du, gazteek enpresen titulartasuna beren gain har dezaten sustatzeko programen bidez.

ARRANTZA JASANGARRIA

Stockak maila jasangarrietan daudela kontrolatzeko eta bermatzeko kudeaketa-planak ezartzen lagundu da. Bestalde, iruzurraren eta legez kanpoko arrantzaren aurkako lanak indartu dira; horretarako, trazabilitate-sistema hobetuak baliatu dira.

AKUIKULTURA SUSTATZEA

Hainbat erataria lagundu zaio akuikulturari: proiektu berritzaileak gauzatu dira, akuikultura-parkeak eraiki, enpresa berriak sortu, ezagutza teknikoa eta teknologia aurreratua sortu eta ingurumena etengabe zaintzeko sistema bat garatu.



5. politika. Elikagaigintza

Taula honetan, 2021ean elikagaigintza aktibatzeko exekutatuak aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

5. politika. Elikagaigintza	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2021	Exekuzioa 2021
Nekazaritza eta Landa Garapena (<i>from farm to fork</i>)	385 M€	83 M€	115 M€
Arrantza	100 M€	31 M€	27 M€
Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	128 M€	30 M€	24 M€
5. POLITIKA, GUZTIRA	613 M€	144 M€	166 M€

- oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulatuak aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.
- oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.
- oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

MERKATARITZA. MERKATARITZA-ESTRATEGIA 2030

Hasi dira 2030erako Merkataritza eta Turismo Estrategia prestatzeko lanak; 2022an onartuko da. Plan hori 2021-2025 aldirako Merkataritza Planerako esparrua da (prestaketa-fasean dago); sektorearen lehiakortasuna hobetzea du helburu, eta jasangarritasunaren eta digitalizazioaren alde egiten du, marka sortzen du eta merkataritza txikiari arreta berezia eskaintzen dio.

KUALIFIKAZIOA ETA BERRITZEA

Aurrera egin da Merkataritzaren arloko Lanbide Heziketa Aurreratuko Zentroaren eraketan. Zentro horrek xede du gizartearen errealitatera egokitutako negozio-ereduekin lehiatzeko beharrezkoak diren gaitasunetan trebatzea profesional berriak.

Belaunaldien arteko erreleboa eta enpresen jarraitutasuna Berriz Enpresa programaren bidez indartu dira; programa horrek enpresen transmisioa modu neutral eta gardenean errazteko eta abian dauden negozioetan sartzeko aukera eskaintzen du.

DIGITALIZAZIOA ETA DIBERTSIFIKAZIOA

Merkataritzaren eraldaketa digitalera bideratutako baliabideak indartu egin dira COVID-19aren krisiaren ondorioei laguntzeko neurrien barruan, pandemiak premia hori azkartu baitu sektorean.

Neurrien artean, Retail Euskal Eskolan espezializatutako goi-mailako ikastaroen prestakuntza-ibilbide berri bat sortu da: *e-learning*eko eredu misto bat da, eta eskariaren arabera tutoretza presentzialak ditu.

MERKATARITZAREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Merkataritza-sektorean eragin handia izan du COVID-19aren krisiak, eta aparteko baliabideak izan dituzte bai jarduerari eusteko bai kontsumoa sustatzeko. Azpimarratzekoa da, besteak beste, kontsumo-bonuen erakundearteko kanpainak indartu direla («Euskadi Bono Denda»). Era berean, merkataritza-establezimenduak modernizatzeko baliabideak areagotu dira, eta txikizkako merkataritzako ekipamendu pertsonalaren sektoreari zuzendutako programa bat abiarazi da, egoerari aurre egiteko.

Merkataritzako Bulego Teknikoen lana garrantzitsua izan da lankidetzako, dinamizazioko eta merkataritza-lehiakortasuneko estrategietarako; horrekin lotuta, lehendik dauden neurriak indartu dira, Hirigune programa kasu.

TURISMOA ETA OSTALARITZA. TURISMO JASANGARRIAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2030

2030erako Merkataritza eta Turismo Estrategia (prestaketa-fasean dago) turismo-politikak zabaltzeko esparru orokorra da. Turismo Jasangarriaren 2021-2025 aldirako Plan Estrategikoa onartu da, eta 2021-2025 aldirako Ostalaritza Plana eta Euskadiko Turismo Baliabideen Lurralde Plana prestatzeko lanak hasi dira.

JASANGARRITASUNA, ERANTZUKIZUNA ETA BIKAINASUNA

Euskadi Basque Country markaren sustapena helmuga turistiko jasangarri, arduratsu eta bikaintasunezko bati dago lotua, eta dibulgazio- eta komunikazio-ekintzen bitartez egin du aurrera. Turismoaren sektorea zaindu, sustatu eta dinamizatzeko eta ikuskapen-lana berregituratzeko laguntza-programa aurkeztu da: Euskal Turismoari Eusteko Laguntza Programa.

Erantzukizunaren arloa indartzeko, Turista Arduratsuaren Gida eta Dekalogoia sustatu dira, eta pandemiaren ondoriozko osasun-egoerara egokitu.

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Merkataritzaren antzera, turismo-sektoreak eta ostalaritzak ezohiko laguntzak izan dituzte COVID-19aren krisiak eragindako ondorioak arintzeko. Nabarmentzekoa da kontsumoa indartzeko kanpaina: Euskadiko turismo-bonua.

Turismoko jardunbide egokien sistema bultzatzen jarraitu da, bai eta helmugak dibertsifikatzen laguntzen ere, haien berezitasunen arabera. Era berean, turismo-helmuga adimendunaren metodologian oinarritutako «Euskadi Basque Country Tourism Intelligence» proiektua jarri da abian.

Sektorearen profesionalizazioak barne hartu ditu turismo-lanbideetako prestakuntza hobetzeko, prestigiatzeko eta babesteko hainbat ekintza, eta, hala, ekintzailtza eta errelebo profesionala bultzatu dira.



6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

KULTUR INDUSTRIAK. EUSKADI SORTZAILEA

Basque District of Culture and Creativity (BDCC) aurkeztu da, Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutia, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren, SPRI Taldearen eta Innobasqueren arteko lankidetzatik sortua. Bestalde, Gaia (Jakintza Industrien eta Teknologia Aplikatuaren Elkarte), arduratuko da datozen urteetan BDCCren zerbitzu guztiak eskaintzeaz eta plataforma garatzeaz. BDCCk sektoreko eragileekin lankidetzan sortutako programak eta web-tresnak biltzen ditu, industria horietako enpresa eta profesionalak beren negozioen perspektibei buruz modu didaktiko eta praktikoan hausnartzeko aukera izan dezaten.

Bestalde, KSIgune klusterraren bidez kultura- eta sormen-industriak (KSI) sustatzeko estrategia berri bat aurkeztu da. Ezagutza-gune horren helburua da sektore honetako unibertsitateetan, goi-mailako zentroetan eta ikerketa-zentroetan sortutako ezagutzaren transferentzian antzemandako arazoei erantzutea.

Beste ekintza aipagarri bat CREADIS3 Final Conference delakoaren inaugurazioa izan da, lelo honekin: «Berrikuntzan eta aniztasunean oinarritutako kultura- eta sormen-politika eraginkorragoetarako». Euskadik CREADIS-3 proiektua zuzendu du 2017-2021 aldian. Proiektuak kultura- eta sormen-industrien (KSI) esparrua izan du ardatz, eta Europar Batasuneko sei lurralde lotu ditu.

MERKATARITZAREN, TURISMOAREN ETA KULTURAREN ARTEKO SINERGIAK BULTZATZEA

Merkataritza-sektoretik eta beste sektore batzuetako eragileekin elkarlanean eta koordinatuta sortzen diren lankidetzaren sinergiak sustatzen jarraitu da, Hiria 3.1 programaren bidez, esaterako.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

Taula honetan, 2021ean merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria berraktibatzeke exekutatuak aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria	Aurreikuspena 2020-2024	Aurreikuspena 2021	Exekuzioa 2021
Merkataritza	84 M€	19 M€	29 M€
Turismoa eta ostalaritza	76 M€	19 M€	59 M€
Kulturaren industria	153 M€	34 M€	41 M€
6. POLITIKA, GUZTIRA	313 M€	72 M €	129 M €

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulatuak aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2021eko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2021erako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



II. ardatza – Enplegua sortzea

2021eko Berpiztu Programa

- 7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak
- 8. politika. Enplegurako prestakuntza
- 9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
- 10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
- 11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintza
- 12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana



EKINTZAILLETZAKO ERAKUNDEARTEKO PLANA (EEP) 2021-2024

Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakundearteko Plana (2021-2024) 2021eko apirilean sartu da indarrean, eta espiritu eta kultura ekintzailea sustatzeko eta finantza- eta inbertsio-laguntzako tresnak hobetzeko jarduketako-ildoak ezarri ditu. Era berean, Euskadiko Ekintzailletzaren Aholku Batzordea eratu da.

MIKROETE SORTU BERRIAK ETA AUTONOMO BERRIAK

Autoenplegua sustatzeko eta enpresa berriak (mikroETEak) sortzeko ekintzak egin dira ekintzaileentzako laguntzen bidez, ekintzailletza-prozesuaren fase guztietan (ideiaren garapenetik eta enpresa-proiektua abian jartzetik hura finkatzeraino). Programa horien artean daude, besteak beste, babes ekonomikoa, laguntza, tutoretza eta langabeziaren kapitalizazioa. Era berean, ekimen berri bat jarri da abian, emakumeen ekintzailletza sustatzeko eta enpresetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeko.

Bestalde, lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dira beste toki-erakunde eta entitate batzuekin, ekintzailletzari laguntzeko programak zabaltzeko, hala nola Dema eta Gaztenpresa programak.

NAZIOARTEKO STARTUP-AK ERAKARTZEA

Talentua eta nazioarteko *startup*ak erakartzeko, hainbat ekimen zabaldu dira, euskal enpresen eta *startup*en arteko elkarrekintza, berrikuntza-proiektuen garapena eta Euskadin ezartzea errazteko helburu komunarekin. Ekimen aipagarrienetako bat Bind 4.0 berrikuntza irekiko plataforma da; programaren seigarren edizioa abiarazi da jada.

ENPRESA-PROIEKTU BERRIAK

Oinarri teknologikoa duten enpresa-proiektu berritzaileak sustatzeko, laguntza-programak baliatu dira, eta, horien artean, Gauzatu Berria nabarmendu behar da, inbertsioaren eta enpleguaren sorreraren aldeko apustua egiten duten ETE industrialei zuzendua.

Bestalde, enpresen barruan sortutako barne-ekintzailletzako proiektuen garapena bultzatu da (negozio-lerro berriak, produktuak eta zerbitzuak); adibidez, Barneekintzaile programaren bitartez.

ENPRESA BERRITZAILLE BERRIAK

Kalitatezko enplegua sortzen lagunduko duten ETE teknologiko eta berritzaile berriak sortzeko laguntza hainbat programa eta zerbitzuren bidez hedatu da, eta honako hauek barne hartu dituzte: laguntza ekonomiko eta finantzarioak (Ekintzaile programa, esaterako); aholkularitza eta laguntza BIC zentroen bidez (enpresa-berrikuntzako zentroak); aholkularitza-, mentoring- eta coaching-zerbitzuak; eta nazioarteko merkatuetara sartzeko laguntzak.

ETE BERRIAK LEHEN SEKTOREAN, GIZARTE-EKONOMIAN, MERKATARITZAN ETA TURISMOAN

Enplegua sortzeko ahalmena duten sektore jakin batzuetan ekintzailletzaren alde egindako apustua laguntza-programa espezifikoaren bidez islatu da. Horrela, landa-ingurunean eta itsasertzean jarduera ekonomikoa sortzen lagundu da, eta Leader, Erein GazteNEK eta Geroa programak nabarmendu dira, helburu baitute dibertsifikazio-jarduerak sustatzea, enpresa berriak sortzea eta lehendik dauden enpresak handitzea eta modernizatzea.

Halaber, abian jarri dira gizarte-ekonomian ekiteko, gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikatua bultzatzeko eta COVID-19ak kaltetutako gizarte-ekonomiako enpresak finkatzeko laguntzak. Aipatu behar da Mondragon City Challenge proiektuan parte hartu dela. Proiektuak ekintzailletza kooperatiboko eredu izan nahi du, eta gazteen artean gizarte-ekonomia zabaltzea du helburu. Bestalde, merkataritza eta turismoan, programa espezifikoak baliatu dira turismo jasangarriari eta tokiko kontsumoari lotutako enpresak sortzen eta/edo aurrera egiten laguntzeko.



7. politika. Ekintzailtza. Enpresa berriak

Taula honetan, 2021ean exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta ekintzailtzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

7. politika. Ekintzailtza. Enpresa berriak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2021eko aurreikuspena		2021eko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
MikroETEak eta autonomoak	26 M€	4.565	5 M€	770	3 M€	860
Elikagaien sektoreko enpresa berriak	13 M€	1.245	2 M€	210	1 M€	227
Gizarte-ekonomiako enpresa berriak	6 M€	747	1 M€	126	1 M€	60
Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak	8 M€	913	4 M€	154	6 M€	64
Enpresa berritzaile berriak	175 M€	3.320	15 M€	560	14 M€	1.142
7. POLITIKA, GUZTIRA	128 M€	10.90	27 M€	1.820	25 M€	2.353

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak gobernuaren 2021eko aurrekontuko «210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira; horri gehitu egin zaio osasun-arloko Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustaturako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenekoa da.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

8. politika. Enplegurako prestakuntza

II. ARDATZA – ENPLEGUA SORTZEA

2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA

LANGABEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Enplegurako Lanbide Heziketaren esparruan gauzatu dira prestakuntza-ekintzak –bi urteko deialdia (2020-2022), eta dagozkion kudeaketa-mandatuko akordioak gauzatzea–, langabezia dauden langileak birkualifikatzeko, lan-merkatuan eskatzen diren kualifikazio eta gaitasunekin bat etorritz.

Era berean, gaitasun profesionalei buruzko prestakuntza-ekintzak abiarazi dira enplegu-nitxo berrien eremuan, barne hartuta pertsonen zainketen eremuko, trantsizio energetiko-ekologikoaren eremuko eta ekonomia sortzailearen eremuko gaitasun digitalak eskuratzea eta hobetzea.

Krisian dauden sektoreen behar espezifikoak kontuan hartuta, automatizazioak eta globalizazioak eragindako industria-sektoreetako langileak birkualifikatzeko eta birkokatzeke programa bat jarri da abian. Metalaren sektoreko programa pilotu bati ekin zaio, eta asmoa da beste sektore batzuetara zabaltzea.

Horrekin lotuta, Aukeraberri programa zabaldu da, krisian dauden sektoreetatik –esaterako, manufaktura-industria, handizkako eta txikizkako merkataritza, ostalaritza, finantza- eta aseguru-jarduerak eta bidaia-agentziak– datozen pertsonak birkualifikatzeko eta birkokatzeke.

KONTRATATZEKO KONPROMISOA BEREKIN DUEN PRESTAKUNTZA

Kualifikazio espezifikoaren osagarria behar duten lanbide-profiletako behar zehatzei erantzuteko asmoz, enpresek garatutako prestakuntza-ekintza espezifikoak garatzen lagundu da, eta prestakuntza jaso duten pertsonen % 50 gutxienez kontratatzeke konpromisoa hartu da.

Era berean, emakumeen kualifikazioaren eta laneratzearen alde egin da maskulinizatutako lanbideetan, prestakuntza- eta enplegu-programen bidez, eta prestatutako emakumeen % 70 gutxienez kontratatzeke konpromisoa hartu da.

NEKAZARITZAKO ETA ARRANTZAKO TREBAKUNTZA

Nekazaritzako, itsasoko, arrantzako eta elikagaigintzako trebakuntzaren arloko prestakuntza-ekintzak urte anitzeko deialdiaren (2021-2023) eta Hazirekin egindako kudeaketa-mandatuen akordio bidez gauzatu dira. Programa horrek langabetuentzako eta landunentzako prestakuntza-ekintza espezifikoak barne hartu ditu, enplegurako prestakuntzaren esparruan.

LANDUNAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Langileen gaikuntza egokitzeko eta hobetzeko ikuspegitik, enplegurako prestakuntzaren esparruan prestakuntza-ekintza sektorialak eta zeharkakoak gauzatzen lagundu da. Ekintza horiek 2020-2022 bi urteko deialdiaren esparruan gauzatu dira, dagozkion kudeaketa-mandatuen akordioekin batera.

Bestalde, enpresek prestakuntza-ekintza estrategikoak gauzatzeko laguntza izan dute (prestakuntza hobaridunaren kreditua agortu ondoren); esaterako, langileentzako prestakuntza espezifikoak.

Era berean, enpresa-elkarteei eta erakunde sindikalei zuzendutako prestakuntza bultzatu da: beren jarduerako gaitan giza baliabideen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak egin dira.

LAN-ORIENTAZIOA

Enplegurako orientazio-ekintzak eta zerbitzuak bultzatzen jarraitu da; horretarako, laneratzeke ibilbide integralak diseinatzeke prozesuaren zatitza hartu da prestakuntza, eta enplegutik urrunen dauden pertsonen arreta berezia eskaini zaie.

Ibilbide horiek barne hartzen dute laguntza pertsonalizatua ematea eta erabiltzailearekin lankidetzan egindako jarraipen-plan bat zehaztea. Ibilbideek zerbitzu integrala eskaini nahi dute, eta, hala, horren barruan sartuko dira pertsonaren profilaren diagnostikoa eta analisisa, ibilbide pertsonalizatuaren diseinua eta beren garapenerako laguntza, enpresekiko bitartekaritza eta ondorengo jarraipena, enpleguan txertatzen direla bermatzeko.

Zerbitzu horiek lanbide-orientaziorako 2021-2023 aldiko laguntzen bi urteko deialdiaren bidez gauzatu dira.



8. politika. Enplegurako prestakuntza

Taula honetan, 2021ean exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegurako prestakuntzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

8. politika. Enplegurako prestakuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2021eko aurreikuspena		2021eko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Lan-orientazioko programak	35 M€	16.600	8 M€	2.800	8 M€	2.588
Nekazaritzako eta arrantzako trebakuntza-programak (elikadura-katea)	3 M€	519	0,3 M€	88	1 M€	300
Kontratatze konpromisoa berekin duen prestakuntza	14 M€	1.245	2 M€	210	1 M€	257
Langabeak laneratzeko prestakuntza	222 M€	23.736	46 M€	4.004	46 M€	9.000
Landunak birziklatzeko prestakuntza	68 M€	*	19 M€	*	22 M€	*
8. POLITIKA, GUZTIRA	342 M€	42.100	75 M€	7.102	78 M€	12.145

(*) Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhertasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak gobernuaren 2021eko aurrekontuko «210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira; horri gehitu egin zaio osasun-erlako Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenekoa da.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea. Era berean, kontuan izan behar da 2021eko aurreikuspenean enplegurako prestakuntzako jardueretarako zenbatetsitako laneratzeko-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta, azkenean, hori aplikatu da 2021eko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA

TOKIKO ETA ESKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK

Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen programaren urteko deialdia egin da. Programak helburu du enplegarritasuna hobetzea eta langabeen kontratazioa sustatzea, eta, horretarako, toki-erakundeek, alde batetik, enplegua sustatzeko jarduerak prestatzen dituzte, eta toki-eremuko enpresek, bestetik, kontratazioa bultzatzeaz gain, laneratzen laguntzen dute.

Egoera ahulenean dauden eremu eta udalerriek eta/edo lehentasunezko jarduketaren eremuek (Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterri, Oarsoaldea eta Aiaraldea) ekintza espezifikoak izan dituzte, eta plan berezi bat jarri da abian, trakzio-proiektuak dinamizatuta horiek bultzatzeko.

Bestalde, eskualdeko Laneratze Poloa hedatzeko hitzarmena onartu da Oarsoaldea Garapen Agentziarekin.

BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN LANERATZEA ETA LANERATZE-ENPRESENTZAKO LAGUNTZAK

Merkatuan sartzeko eta/edo mantentzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea ekimen espezifikoaren bidez bultzatu da; ekimen horien artean, «proiektu berezien» programa nabarmentzen da. Programa horrek prestakuntza-ekintzak, esperientzia praktikoa, gizarteratzeko laguntza, orientazioa, babes individualizatua eta enplegarritasuna eta laneratzea sustatzeko beste neurri batzuk uztartzen ditu.

Laneratze-enpresen funtzionamenduak laguntza espezifikoak izan ditu, beren jarduerari sortzeko eta mantentzeko.

IRAUPEN LUZEKO LANGABEAK KONTRATATZEA

Enpresek kolektibo behartsuenak kontratatzea errazteko ekimen espezifikoak jarri dira abian. Ekimen horien artean, iraupen luzeoko langabeak kontratatzekeo pizgarrien programa aipatu behar da: emakumeentzat eta 45 urtetik gorako pertsonentzat, laguntza gehiago daude.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK

Enplegu-zentro berezien jarduera funtsezko tresna bat da desgaitasuna duten eta lan-munduan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen lanpostuak mantentzeko. Horri dagokionez, zentroek laguntza espezifikoak izan dituzte bai beren jarduerari gauzatzeko, bai jarduerari laguntzeko unitateak finantzatzeko bai desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK KONTRATATZEA

Desgaitasuna duten pertsonen laguntza-programa espezifikoak izan dituzte, merkatu arruntean sartzeko laguntzeko. Horrela, merkatu arruntean kontratu mugagabeak egiteko laguntzen urteko programa sortu da, hala, lanpostuak desgaitasuna duten pertsonen baldintza fisiko, psikiko eta intelektualetara egokitzea errazteko.

Modu osagarrian, zailtasun- eta desgaitasun-maila handienak dituzten pertsonak aldi baterako kontratatzekeo laguntzak eman dira, enpresentzako laguntza teknikoaren barne.

Lagundutako enplegu-unitateak sustatzeko, laguntza espezifikoak baliatu dira. Laguntzok desgaitasuna duten pertsonen merkatu arruntean enplegua lortzen eta finkatzen lagunduko dieten lan-prestatazaileei daude zuzenduta.

KONTZILIATZEN DUTEN PERTSONEN ORDEZKOAK KONTRATATZEA

Lana eta familia uztartzeari dagokionez, arlo horretan enpresei zuzenean laguntzeko urteko programaren bidez bultzatu da. Helburua izan da lana eta familia bateragarri egiteko xedez eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko langabeak kontrata ditzaten edo enplegatuen lanaldia zabal dezaten laguntzea.



9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Taula honetan, 2021ean exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta laneratzearen eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2021eko aurreikuspena		2021eko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	174 M€	14.525	36 M€	2.450	38 M€	4.500
Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak laneratzea	18 M€	1.245	4 M€	210	4 M€	522
Iraupen luzeko langabeen laneratzea, sektore pribatuan kontratatzeko laguntzen bidez	6 M€	518	2 M€	88	1 M€	70
Lanertzeko programa espezifikoak enpresetan	58 M€	3.182	10 M€	536	7 M€	349
Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + enplegu lagundua)	8 M€	830	2 M€	140	1 M€	130
Enplegu-zentro bereziak	258 M€	*	60 M€	*	49 M€	*
Laneratze-enpresentzako laguntzak	45 M€	*	10 M€	*	8 M€	*
Lan- eta familia-bizitza erantzunkidetasunez uztartzeak eragindako enplegua	10 M€	5.810	2 M€	980	1 M€	800
9. POLITIKA, GUZTIRA	577 M€	26.110	126 M€	4.404	109 M€	6.371

(*) Programa horiek desgaitasuna eta lanertzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enpleguaren egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtzat jo da ez dutela enplegu berririk sortzen modu esanguratsuan.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak gobernuaren 2021eko aurrekontuko «210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira; horri gehitu egin zaio osasun-arloko Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustaturako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenekoa da.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.



2030ERA KO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA

ERAIKUNTZAREN RENOVE PROGRAMAK

Birgaitze- eta eraikitze-jarduerak bultzatzeak garrantzi eta eragin berezia du bai enplegua sortzeari dagokionez bai ingurumenari eta gizarteari dagokienez. Horri dagokionez, eraikitako parkea energia-efizientziako irizpideen arabera eta emisiorik gabekoak izateko xedez berritzeko eta birgaitzeko programek ekonomia eta jasangarritasuna suspertzeko motor garrantzitsua izaten jarraitu dute. Gainera, aldi berean, Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050. urterako ezarritako karbono-emisioen neutraltasunerako Europako helburua lortzen lagundu dute.

2021ean eraikuntzaren hainbat eremutan bultzatu dira birgaitze-programak, eta, horien bitartez, sektorearen jardura ekonomikoa sustatu da, bai eta lanpostu «berdeak» sortu ere, COVID-19ak eragindako krisitik ateratzeko Europako lehentasunekin bat etorritz. Jarduketa garrantzitsuenak programa hauen bidez zabaldu dira:

RENOVE Etxebizitzak: Etxebizitzak eta eraikinak modu efizientean birgaitzearen alde egin da, bizigarritasuna, segurtasuna eta irisgarritasun-baldintzak hobetzeko eta energia-kontsumoa murrizteko. Hori lortzeko, hain zuzen, partikularrentzako eta jabeen erkidegoentzako laguntzen deialdia eta eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak egiteko laguntzen deialdia egin dira. Era berean, hiri-ingurunearen eta espazio publikoen irisgarritasuna hobetzeko eta hirigintza-arazo eta arazo sozial bereziak dituzten eremuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketak bultzatu dira.

RENOVE Ikastetxeak: Ikastetxe publikoetan (haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta lanbide-heziketa) birgaikuntza-lanak egiten lagundu da, azpiegiturak egokitzeko edo eraberritzeko eremuan aurkitutako beharrianak eta/edo eskolatzee-arrazoiak direla eta aurretik dauden handitze-premiak betetzeko. Obrek honako helburu hauek izan dituzte, batez ere: oztopo arkitektonikoak kentzea, espazio eta instalazio batzuk zabaltzea eta eraberritzea (arkupeak, estalkiak, jantokiak eta sukaldeak, aldagelak, kirol-eremuak, instalazio elektrikoak, eta abar), suteen aurkako araudira egokitzea eta eraikin berriak eraikitzea.

RENOVE Osasun-zentroak: Osasun-zentro publikoetan, birgaitze- eta birmoldatze-jarduketak bultzatu dira, eta hainbat eratako eta irismeneko berrikuntzak egiteaz gain, azpiegiturak, instalazioak eta irisgarritasuna hobetu dira, oro har. Obrek ESI hauei eragin diete bereziki: OS10 Araba; OS14 Debagoiena; OS15 AOMS; OS16 Arabar Errioxa; OS30 Donostialdea; OS32 Bidasoa; OS36 Goierri-Urola Garaia; OS37 Debarrena; OS39 GOMS; OS44 Uribe; OS62 Bilbo-Basurtu; OS63 Barrualde-Galdakao; OS65 Barakaldo-Sestao; eta OS66 Ezkerralde-Enkarterri-Gurutza.

10. politika. Renove programa. Eraikinen birgaikuntza

Taula honetan, 2021ean exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta Renove programaren eta eraikinen birgaikuntza-programaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2021eko aurreikuspena		2021eko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Renove Etxebizitzak	143 M€	10.269	31 M€	1.732	26 M€	2.090
Renove Ikastetxeak	209 M€	3.752	44 M€	633	39 M€	768
Renove Osasun-zentroak	54 M€	979	12 M€	165	11 M€	221
10. POLITIKA, GUZTIRA	406 M€	15.000 (*)	87 M€	2.530	76 M€	3.079

(*) Zenbatespena, biderkatzaileetan oinarrituta. Renove Etxebizitza programaren kasuan, 4 aldiz biderkatzen da inbertsio publikoa (laguntza publikoko 1 € gehi inbertsio pribatuko 3 €, jabe bakoitzeko), eta, kopuru horren gainean, 0,6ko biderkatzailea aplikatzen da soldatara (enpleguak) bideratutako zatia kalkulatzeko, eta zatiketa bat 30.000 euroko enpleguen batez besteko soldata kalkulatzeko. Renove Ikastetxeak eta Renove Osasuna programen kasuan, inbertsioa guztiz publikoa da; beraz, batez besteko lansaria eta soldata biderkatzaileak baino ez dira hartzen kontuan.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak gobernuaren 2021eko aurrekontuko «210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira; horri gehitu egin zaio osasun-arloko Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustaturako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenekoa da.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaraturako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

2030ERAKO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA

ENPLEGU PUBLIKOA

Administrazio publikoarentzat erronka da, oraindik ere, enplegu publikoaren sektorea enplegu-emaila eraginkor eta efiziente gisa finkatzea, hots, kalitatezko enplegua sortu eta hobetuko duen erakunde gisa. Horretarako, belaunaldi-erreleboaren planifikazio egokia sustatzen jarraitu da, ezagutza erakundeen barruan mantentzen dela bermatuta, eta enplegu publikoa lehenetsi da gizarte-politikekin lotutako eremuetan (osasuna eta hezkuntza, esaterako), funtsezko zerbitzuetan (segurtasuna, adibidez) eta zerbitzu orokorren beste eremu batzuetan.

Testuinguru horretan, Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean onartu du 2021eko lan-eskaintza publikoa, 3.988 plazakoa. Honela banatu dira plazak: 435 administrazio orokorrean; 1.856 hezkuntzan; 424 segurtasunean; eta 1.273 osasunean.

Lan-eskaintza publiko horretan oinarrituta, 2022an, dagozkion deialdiak egingo dira sektore bakoitzean, eta horietan zehaztuko dira eskainitako plazak eskuratzeko prozedura eta baldintzak, bai eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazen banaketa ere.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak aurrera egin du behin-behinekotasuna murrizteko konpromisoan, eta aurreikusten du, datorren urtetik aurrera, euskal administrazioko sektore guztietan egonkortze-prozesuak abian jartzea.

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak

Taula honetan, 2021ean exekututako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegu publikoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2021eko aurreikuspena		2021eko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Administrazio Orokorra	*	1.150	*	800	*	435
Osasuna	*	4.100	*	800	*	1.237
Ertzaintza	*	1.900	*	300	*	424
Hezkuntza	*	3.100	*	600	*	1.856
Justizia	*	320	*	100	*	0
Beste batzuk	*	150	*	25	*	0
11. POLITIKA, GUZTIRA	*	10.720	*	2.625	*	3.988

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

- oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.
- oharra: 2021eko exekuzio-zifrak (enpleguak) aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea.

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

2030ERA KO ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIA

LANBIDE HEZIKETA ETA UNIBERTSITATE-HEZIKETA DUALA

Prestakuntza dualaren ereduak sustatzen jarraitu da bai unibertsitate-eremuan bai lanbide-heziketaren eremuan. Horrela, 2021ean, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako Graduko eta Masterreko unibertsitate-tituluetarako aitorten duala dute Euskal Unibertsitate Sistemaren ematen diren 41 titulaziok, 27 graduk eta 14 masterrek. Horrez gain, zenbait titulaziok nazioartekotze-aitorpena dute.

Lanbide Heziketaren eremuan, eredu dualean eskainitako zikloen (erdi- eta goimailako graduak) eta espezialitateen irismena zabaltzen jarraitu da, bai eta prestakuntza-zentroen parte-hartzea sustatzen ere.

GAZTEEN ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA-BEKAK

Nazioartean, Beint eta Global Training beka-programak indartu dira, nazioarteko esperientzia baten bidez, titulu berri diren gazteen talentua sustatzeko. Halaber, beka espezifikokoak sortu dira ingurune zientifiko-teknologikoan eta nekazaritzaren, arrantzaren eta elikaduraren sektorean.

HEZKUNTZA-MUNDUTIK LAN-MUNDURA IGAROTZEKO PROGRAMAK

Gazteak hezkuntza-mundutik lan-mundura egiten duten trantsizioa indartu egin da unibertsitateekin eta lanbide-heziketako zentroekin egindako lankidetzaprogramen bidez. Horri dagokionez, enpresa-inguruneko esperientzia praktikoa bat erraztu nahi izan da, gazteen ezagutzak, gaitasun teknikoak eta trebetasunak areagotzeko, eta, aldi berean, enpresen benetako beharretara hobeto egokitzeko.

GAZTEEN ITZULERA

Gazteen itzulerarako programa 2021ean berrikusi da, eta ez da dagokion deialdia abiarazi. Programaren helburua da Euskaditik kanpo bizi diren eta itzuli nahi duten gazteei euskal lan-merkatuan sartzen laguntzea.

LEHEN AUKERA

Lehen Aukera programa dagokion laguntza-deialdiaren bidez jarri da abian, gazteei lehen lan-aukera bat eskaintzeko, enpresek beren titulazioarekin lotutako enpleguetarako kontratatuta. Horrez gain, enpresei kudeaketa errazteko asmoz, eskakizunak hobetzeko ahaleginak egin dira.

Era berean, toki-erakundeek gazteak kontratatuzeko laguntzen deialdia egin da, Gazteen Programa Operatiboaren esparruan, haien enplegarritasuna errazteko, lanbide-esperientzia eskuratuta.

ERRELEBO-KONTRATUA

Enpresetako langileak berritzeko eta gaztetzeko, gazteen errelebo-kontratuei, lanaldi osokoei eta mugagabekoei laguntzeko urteko deialdia egin da. Modu osagarrian, 45 urtetik gorakoentzako ildo espezifikoa bat barne hartu du programak.

GAZTEAK LANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Gazteek laneratzeko hainbat prestakuntza-ekintza izan dituzte, enpresen eskaerei hobeto egokitzeko eta erantzuteko. Horrela, enplegurako prestakuntzaren esparruan gauzatutako ekintza orokorretan parte hartu dute, eta kualifikazio baxua duten gazteak gizareratzeko eta laneratzeko beste prestakuntza-ekintza espezifikoa batzuk ere izan dituzte.

Halaber, gazteen prestakuntzarako eta txandakako enplegurako Hezibei programa gauzatu da Hezkuntza Sailarekin elkarlanean.



12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

GAZTEAK LANERATZEKO EKINTZA BERRITZAILEAK

Lehen lan-aukeraren bila dabilzan gazte tituludunen enplegarritasuna handitze aldera, berritzailetzat jotzen diren beste laneratze-ekintza batzuk abiarazi dira.

Horri dagokionez, Novia Salcedo Fundazioarekin batera, «Reactivate» programa aurkeztu da, gazteei enpresetan ikasteko eta lan egiteko aukera emateko.

Europako funtsak oso garrantzitsuak izan dira 2021ean, bai Next Generation EU programaren esparruan bai Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan. Finantza-indartze horrek gazteak laneratzeko zenbait ekimen berritzaile bultzatzen lagundu du.

Horrela, administrazio publikoetako lehen esperientzia profesionalari buruzko programa aurkeztu da; programaren lehen deialdia 2022rako aurreikusita zegoen, baina 2021eko abenduan izapidetu da. Programa honen helburua da 16 eta 30 urte bitarteko gazteei lehen esperientzia profesionala ematea administrazio publikoetan eta sektore publikoko erakundeetan.

Europako esparru horretan bertan, Investigo programa aurkeztu da. Horren bidez, gazte ikertzaileak eta I+G+Baren arloko profila dutenak kontratatzen dira, hala nola eremu sanitarioak, datuen ingeniartzakoak, ekonomia berdekoak eta arlo sozial, kultural edo artistikokoak. Deialdia 2022rako aurreikusita zegoen, baina 2021eko abenduan izapidetu da.

Azkenik, Estatuko Enplegu Zerbitzuak (SEPE) eta Euskal Autonomia Erkidegoak sinatutako hitzarmena aipatu behar da, bereziki kalteberak diren gazteei zuzendutako berronkarako eta ekitaterako proiektu pilotuak garatzeko (orientazioko, prestakuntzako eta laneratzeko ekintzak uztartzen dituzten banakako ibilbideak). Proiektu horietan, halaber, 45 urtetik gorako langabeei arreta eskaintzea aurreikusten da. Lehenengo deialdia 2022rako aurreikusita dago.

GAZTEEN EKINTZAILTZEA

Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzailtza-kultura bultzatzen jarraitu da, hala, ekintzailtza-esperientzia praktiko bat sustatzeko eta ekintzaileari laguntzeko, hasierako ideiatik enpresa berria sortu arte (esaterako, Urrats Bat programa, Lanbide Heziketako ikastetxeetan).

Era berean, gazteen presentzia indartu da mikroETEen eta/edo autonomoen ekintzailtza-programetan, eta horrekin lotutako laguntza gehiago eman dira. Programa horiek ekintzailtza-prozesu osoan laguntza ematea aurreikusi dute, hasierako ideia izaten den unetik enpresa-proiektua abian jartzen den arte.

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Taula honetan, 2021ean exekutaturako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta gazteen enpleguarekiko konpromisoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2021eko aurreikuspena		2021eko exekuzioa	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak	Inbertsioak	Enpleguak
Enplegurako prestakuntza duala	*	11.990	*	2.023	*	1.934
Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14 M€	3.280	3 M€	553	3 M€	736
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42 M€	1.936	6 M€	327	12 M€	523
Gazteak laneratzeko prestakuntza **	18 M€	2.728	4 M€	460	2 M€	915
Gazteen enplegurako programak: Lehen Aukera, Errelebo Kontratua, Gazteen Itzulera eta Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak	65 M€	4.150	12 M€	700	9 M€	1.037
Gazteen ekintzailera	23 M€	1.716	5 M€	289	1 M€	460
12. POLITIKA, GUZTIRA	162 M€	25.800	30 M€	4.352	27 M€	5.605

(*) Aurrekontua ez da sartu, LHko eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

(**) 2021ean gauzatutako inbertsioaren atalean, ez dira sartzen ikas-ekinezko prestakuntzako Hezibi programako langile-gastuak (hasiera batean 1,5 eta 2 milioi euro artean aurreikusi ziren). Era berean, programa honen laneratzeko-tasa % 80koa izan da, hasieran aurreikusitako laneratzeko-tasa baino handiagoa.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2021eko aurrekontu-datuak gobernuaren 2021eko aurrekontuko «210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira; horri gehitu egin zaio osasun-arloko Renove programarako eta Beint eta Global Training beketarako aurreikusitako aurrekontua. 2021ean sustaturako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenekoa da.

3. oharra: 2021eko aurrekontuaren exekuzio-zifrak Ogasun Sailaren Gardena web-atarian argitaratutako azken datuei dagozkie (D fasean esleitutako aurrekontuak), sailaren kontrastea barne. Datuak aurrerapenak dira; beraz, baliteke behin betiko exekuzioaren datuak izatean berrikustea. Era berean, kontuan izan behar da 2021eko aurreikuspenean enplegurako prestakuntzako jardueretarako zenbatetsitako laneratzeko-tasa murriztaileagoa zela (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta, azkenean, hori aplikatu da 2021eko emaitzak kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak (Lanbide) emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.





2. eranskina

BERPIZTU 2022

Aurrekontu-aurreikuspena,
emaitzak eta ekintza nagusiak





I. ardatza – Ekonomia suspertzea

2022ko Berpiztu Programa

- 1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea
- 2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala
- 3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa
- 4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea
- 5. politika. Elikagaigintza
- 6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria



Berpiztu 2022. Aurreikusitako ekintza nagusiak

Aurreko orrietan aipatutako moduan, 2020ko ekitaldia XI. legealdiaren eta XII. legealdiaren arteko trantsizio-ekitaldia izan zen (azken hori 2020ko irailean hasi zen). Berpiztu Programaren lehen ekitaldi osoa 2021ean exekutatu zen, pandemiaren ondoriozko krisiak markatutako testuinguru sozioekonomiko gorabeheratsu batean. 2022. urtea Berpiztu programaren bigarren ariketa osoa da, Errusiak Ukraina inbaditu izanak eragindako zalantzarako egoera batean garatuko dena. Txosten hau egiteko unean, ez dakigu zenbat iraungo duen eta zer eragin izango duen. Hala ere, ekonomiaren eta gizartearen susperraldiaren aurreikuspenei etsi zaie, eta horretan garrantzi handia izango dute pandemiaren esparruan diseinatutako indartze-programa autonomikoei eta europarrek.

Ondoren, 1. ardatzeko (Ekonomia suspertzea) sei politiketan gauzatzea aurreikusten diren ekintza nagusien hurbilketa orokorra adieraziko da, bai eta dagokion aurrekontu-aurreikuspena ere, abenduaren 23ko 11/2021 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorretan oinarrituta.

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

Azpiegitura publikoak indartzea, hobetzea eta finkatzea, inbertsioak eginda horiek modernizatzeko eta lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, lehentasuna emango zaie inbertsio jasangarrienei eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloan errentagarritasun handiena dutenei. Jarduketara horien artean sartzen diren proiektuak eta obrak trenbide-garraioko azpiegiturekin (Euskal Y-a; topoaren pasagunea Donostiako aldirietan; Zarauzko geltoki berria; Eibar-Azitaian tartean trenbidea estaltzea; ERTMS seinalez-tapen-sistema berria; Gasteizko tranbia luzatzea eta Bilboko Bolueta-Atxuri tartea handitzea; Pasaiaiko porturako trenbide-sarbidea; Kostorbe-Irun salgaien terminala modernizatzea; Altzolako saihesbideko obrak, etab.) eta portuetako azpiegiturekin daude lotuta (Hondarribiko, Getariako, Ondarroako eta Mutrikuko dikeak indartzea; atrakate-azpiegiturak hobetzea; elementu osagarriak berritzea eta konpontzea; zaintza- eta segurtasun-sistemak, etab.), bai eta azpiegitura hidraulikoekin ere (uren saneamendu, hornidura eta arazketa hobetzea, uraren erabilgarritasuna eta kalitatea ez ezik, haren kudeaketa jasangarria ere bermatzeko, bai eta, 2025. urtean, ibaietako uraren % 70 kalitate onekoa edo oso onekoa izan dadin lortzeko ere).

Halaber, inbertsioak egingo dira gizarteko, herritarren zerbitzuetako eta hiri-berroneratzeko ekipamenduetan (besteak beste, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta Unibertsitate Hezkuntzako ikastetxeetan), osasun-zentro eta ospitaleetan, kultura-ekipamenduetan eta ondare historikoarekin lotutakoetan. Gainera, dagoeneko eraikitako etxebizitzaren parkea birgaitu da alokairuko etxebizitza berriekin. Aurrekoari, plan berezian eskualde behartsuak edo lehentasunezko jarduketara-eremuak bultzatzeko aurreikusitako jarduerak gehituko zaizkio.

2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana hedatzea, Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin (RIS3) bat etorritik, eta euskal enpresa-sareari laguntzea, bereziki industriari, berrikuntzari eta I+Garen arloarekin zerikusia duten inbertsioak eta proiektuak egiteko. Horrekin batera, Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren orientabideak abiarazi dira.

Eremu horretara bideratutako baliabideak indartzea eta egokitzea aurreikusten da, hala nola ikerketa teknologiko eta industrial bultzatzeko ekintzak garatzea eta enpresako I+G proiektuak eta ZTBESko agenteen proiektuak garatzen laguntzea; osasunaren eta elikaduraren arloko ikerketa-programak sendotzea; ikerketa zientifikoko eta unibertsitateko ikerketako jarduerak bultzatzea, talentu zientifikoko eta teknologikoa erakarrira eta trebatuta; eta berrikuntza irekia sustatzea, enpresa-kudeaketa aurreratuko eta eraldaketa digitala babesteko programen bitartez.



Berpiztu 2022. Aurreikusitako ekintza nagusiak

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

Arlo honetako hiru estrategia funtsezkoak zabaltzen aurrera egitea: Euskadiko Energia Estrategia, Ingurumen Estrategia eta Ekonomia Zirkularraren Estrategia. Hori horrela, inbertsio berritzaileak eta jasangarriak sustatuko dira: hainbat sektore ekonomiko eta sozialetako eraikinen energia-efizientzia hobetzeko inbertsioak; teknologia berriak darabiltzaten energia berriztagarriak sustatzeko inbertsioak, eta ekonomia zirkularra eta baliabideen erabilera efizientea sustatzeko inbertsioak. Era berean, Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurraldearen Plan Sektoriala izapidetzen jarraituko da.

Garraio jasangarria eta adimenduna eta automobil-parkean energia alternatiboak erabiltzea funtsezkoak izango dira, eta aurrekontua indartuko da, mugikortasun eraginkorrerako eta jasangarrirako pizgarrien Moves programaren bidez, esaterako (Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan).

Ingurumenaren ikuspegitik, 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planak zuzenduko ditu jarduerak, eta, hala, ingurumena babesteko eta natura-ondarea zaintzeko proiektuak eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko proiektuak gauzatzea bultzatuko da (Klima Aldaketaren Estrategiaren 2021-2025 aldirako ekintza-planaren esparruan).

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 aldirako Plan berrian aurreikusitako jarduketak zabaltzea. Plan horrek euskal industria-ekosistemak ditu ardatz, trantsizio ekologikoa eta digitala zuzentzeko ikuspegi berri gisa, eta ekoizpen-egituraren lehiakortasuna indartzeaz gain, ingurumen-irizpideak txertatzen ditu sektore-politikan.

Digitalizazioaren aldeko apustuak zeregin garrantzitsua izango du Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategiaren barruan. Industria-enpresak «industria 4.0» motakoak izatearen alde egingo da. Horretarako, inbertsioak indartuko dira automatizazioan eta digitalizazioan, eta babes berezia emango zaie nola enpresa txiki eta ertainei hala zailtasun gehien dituzten sektoreei, bai eta hazkunde-gaitasuna duten sektoreei eta sektore gakoei ere; besteak beste, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak. Halaber, jarraipena emango zaie pandemiak gehien eragindako sektoreak indarberritzeko eta eraldatzeko jarduketari; izan ere, enpresak sendotuko dira, gaitasun berrien *reshoringa*, garapena eta dibertsifikazioa bultzatuko dira, finantza-tresnak indartuko dira eta Euskadiko trantsizio energetikoan sakonduko da, nola industrian hala beste esparru batzuetan (garraioa, eraikuntza, etab.).

Nazioartekotzearen ikuspuntutik, Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren jarduera ez ezik, Basquexport plataformaren jarduera ere indartzen jarraituko da, eta Euskadi Basque Country marka finkatzeko eta Euskadik nazioarteko proiektuetan parte-hartzea bultzatzeko beste ekimen batzuk ere sustatuko dira. Jarduketak planak zehaztutako ardatz estrategikoak oinarri hartuta gauzatuko dira, barne hartuta, besteak beste, enpresak nazioartekotzen laguntzeko tresnak, nazioarteko jardueraren digitalizazioa, kanpo-sarea eta posizionamendua sendotzea eta talentua sortzea eta txertatzea.

Berpiztu 2022. Aurreikusitako ekintza nagusiak

5. politika. Elikagaigintza

Arlo honetako hiru plan handiak zabaltzen aurrera egitea: Nekazaritza Politika Bateratuaren Erakundearteko Plan Estrategikoa; Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa, eta Europako Itsas eta Arrantza Funttsaren Programa Operatiboa. Era berean, landa-garapenaren lege berria abian jartzea aurreikusten da.

Jasangarritasuna, garapen teknologikoa eta digitalizazioa izango dira, oraindik ere, nekazaritza- eta elikadura-sektorearen eta landa- eta itsasertz-eremuaren apustu handiak eta jarduera-motorrak, haien etorkizuna ziurtatzeko, eta, aldi berean, parte-hartzerako eta lehiakortasunerako aukerak sortzeko, zerbitzu kolektiboen arloko gabeziak ezabatzea bultzatzeko, aurretik dagoen prestakuntza-defizita babesteko eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko, horrekin guztiarekin, sektoreko utzikeria saiheste aldera.

Testuinguru horretan, ekintza garrantzitsuenek barne hartuko dute sektorearen digitalizazio orokorrari laguntzea. Bide horretan, proiektu berritzaileak sustatuko dira, enpresa txiki eta ertainak teknologiarantz hurbildu daitezkeen. Horretarako, beharrezkoa den trebakuntza eta laguntza emango zaizkie, teknologia horien ahalmena ahalik eta gehien aprobetxatu dezaten. Era berean, dibertsifikazio ekonomikoa bultzatuko da, elikaduraren eta landa- eta itsasertz-ingurunearen balio-katean ekintzaitza sustatzen saiatuta, ekonomia indarberritzen eta enplegua suspertzen lagunduta eta belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko eta sektore horietako profesionalen trebakuntza hobetzeko neurri espezifikoak sortuta.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

EAEko Merkataritza eta Turismoaren 2030eko Estrategia onartzea, sektore horietako plangintza estrategikoaren esparru orokor gisa. Estrategia hori hainbat planen bidez zabaltzen da: 2021-2025 aldirako Merkataritza Plana (2022an onartua); 2021-2025 aldirako Turismo Jasangarriaren Plan Estrategikoa (2021ean onartua); Euskadiko Turismo Baliabideen Lurralde Plana (2022an onartua), eta 2021-2025 aldirako Ostalaritza Plana (2022an onartua).

Turismoaren eta ostalaritzaren ikuspegitik, Euskadi Basque Country turismo-helmuga segurua, jasangarria, arduratsua, adimenduna, bikaintasunezkoa eta lehiakorra izatea lortzeko konpromisoan aurrera egiten jarraituko da, eta turismo-industiaren lehiakortasun orokorra hobetuko duten proiektu berritzaileak garatzen lagunduko. Modu osagarrian, Europako funtsekin lotutako beste ekimen batzuk jarriko dira abian (Next Generation); besteak beste, helmugan jasangarritasun turistikoaren planak.

Merkataritzak sektorea indarberritzearen aldeko apustua egiten jarraituko du, eta, horretarako, eraldaketa digitala eta multikanaltasunera egokitzea hartuko ditu oinarritzat; halaber, sektoreko profesionalen gaitasun digitaletan duten prestakuntza eta gaikuntza indartuko du. Merkataritza txikia eta tokiko kontsumoa bultzatuko dira, eta tokiko erakundeekin batera sustatu eta dinamizatuko da hiriko jarduera ekonomikoa, merkataritza-sektorea hiri-bilbearen ardatz nagusi izan dadin, sektore horren dinamizazioak turismoarekiko, kulturarekiko eta aisiarekiko sinergiak nabarmendu ditzan eta tokiko erakargarritasuna herritarrengana bultzatuz dezan.

Era berean, aurrera egiten jarraituko da ekosistema kultural eta sortzaile aberats eta anitza eratzen, eta berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatuko dira. Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutia (BDCC) eta KSIGune unibertsitate-klusterra abian jarri ondoren, 2022an finkatu egingo dira, aholkularitza-, prestakuntza- eta berrikuntza-programen bidez, kultura- eta sormen-industriak garatzeko tresna gisa. Bestalde, sinergiak eta lankidetzak sustatzen jarraituko da turismoarekin eta merkataritzarekin, bai eta I+G+Baren arloko baterako ekimenak ere espezializazio adimenduneko lehentasunezko gainerako eremuekin.



1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea

Taula honetan, 2022an ekonomia- eta gizarte-azpiegitura publiko berriak sustatzeko aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

1. politika. Azpiegitura publiko ekonomiko eta sozialetan inbertitzea	Aurreikuspena 2020-2024	2022ko aurreikuspena
Trenbide-azpiegiturak	1.563 M€	367 M€
Portuetako azpiegiturak	102 M€	32 M€
Osasun-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	323 M€	110 M€
Azpiegitura hidraulikoak	120 M€	34 M
Etxebizitza-azpiegiturak	285 M€	99 M€
Hezkuntza-azpiegiturak (fisikoak eta digitalak)	451 M€	128 M€
Kultur azpiegiturak	132 M€	36 M€
1. POLITIKA, GUZTIRA	2.976 M€	806 €

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

2. politika. Ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala

Taula honetan, 2022an ikerketa, berrikuntza eta eraldaketa digitala sustatzeko aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

2. politika. Ikerketa, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitala	Aurreikuspena 2020-2024	2022ko aurreikuspena
Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa (*)	784 M€	171 M€
Ikerketa teknologikoa eta industrial	1.016 M€	253 M€
Elikaduraren ikerketa eta garapena	119 M€	30 M€
Osasun-ikerketa (*)	265 M€	58 M€
Berrikuntza publikoa eta Administrazio digitala	107 M€	23 M€
Berrikuntzako Funts Estrategikoa	221 M€	53 M€
2. POLITIKA, GUZTIRA	2.512 M€	588 M€

(*) Unibertsitate- eta osasun-ikerketan diharduten langileen gastuak barne hartzen ditu

- oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.
- oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022rako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.



3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa

Taula honetan, 2022an energia- eta ingurumen-trantsizioa sustatzeko aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

3. politika. Energia- eta ingurumen-trantsizioa	Inbertsioak 2020-2024	2022ko aurreikuspena
Energiaren eta baliabideen erabilera eraginkorra	86 M€	66 M€
Teknologia berrietan oinarritutako energia berriztagarriak bultzatzea	48 M€	36 M€
Garraio eta mugikortasun jasangarriak eta adimendunak lehenestea	81 M€	62 M€
Ingurumena babestea	57 M€	16 M€
Natura-ondarea zaintzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea	85 M€	25 M€
3. POLITIKA, GUZTIRA	357 M€	205 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022rako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea

Taula honetan, 2022an industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea sustatzeko aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

4. politika. Industria eta ETEak, zerbitzu aurreratuak, sormen-industriak eta nazioartekotzea	Inbertsioak 2020-2024	2022ko aurreikuspena
Industria-garapena: Basque Industry 4.0, ETEei laguntzea, <i>reshoringa</i> eta sendotzea, krisian dauden enpresei laguntzea, zerbitzu aurreratuak eta sormen-industriak, eta Health Cluster indartzea.	1.004 M€	129 M€
Enpresentzako maileguren finantza-kostua murriztea (COVID-19)	53 M€	11 M€
Enpresak nazioartekotzea	107 M€	185 M€
4. POLITIKA, GUZTIRA	1.164 M€	325 M€

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022rako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

5. politika. Elikagaigintza

Taula honetan, 2022an elikagaigintza aktibatzeko aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

5. politika. Elikagaigintza	Inbertsioak 2020-2024	2022ko aurreikuspena
Nekazaritza eta Landa Garapena (<i>from farm to fork</i>)	385 M€	92 M€
Arrantza	100 M€	28 M€
Elikagaien Sustapena eta Kalitatea	128 M€	39 M€
5. POLITIKA, GUZTIRA	613 M€	159 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022rako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria

Taula honetan, 2022an merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria berraktibatzeke aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira:

6. politika. Merkataritza eta turismoaren eta kulturaren industria	Inbertsioak 2020-2024	2022ko aurreikuspena
Merkataritza	84 M€	23 M€
Turismoa eta ostalaritza	76 M€	20 M€
Kulturaren industria	153 M€	36 M€
6. POLITIKA, GUZTIRA	313 M€	79 M€

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: 2022ko aurrekontu-datuak Eusko Legebiltzarrean 2022rako onartutako aurrekontuetatik hartu dira.



II. ardatza – Enplegua sortzea

2022ko Berpiztu Programa

- 7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak
- 8. politika. Enplegurako prestakuntza
- 9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak
- 10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza
- 11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintza
- 12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana



Berpiztu 2022. Aurreikusitako ekintza nagusiak

Aurreko orrietan aipatutako moduan, 2020ko ekitaldia XI. legealdiaren eta XII. legealdiaren arteko trantsizio-ekitaldia izan zen (azken hori 2020ko irailean hasi zen). Berpiztu Programaren lehen ekitaldi osoa 2021ean exekutatu zen, pandemiaren ondoriozko krisiak markatutako testuinguru sozioekonomiko gorabeheratsu batean. 2022. urtea Berpiztu Programaren bigarren ekitaldi osoa izango da; beraz, egoera baikorrago batean eta susperraldi ekonomiko eta sozialeko fase batean gauzatuko da. Hori dela eta, garrantzi handia izango dute pandemiaren esparruan diseinatutako erkidego mailako eta Europa mailako indartze-programak.

Ondoren, 2. ardatzeko (Enplegua sortzea) sei politiketan gauzatzea aurreikusten diren ekintza nagusien hurbilketa orokorra adieraziko da, bai eta dagokion aurrekontu-aurreikuspena ere, abenduaren 23ko 11/2021 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorretan oinarrituta.

Egingo diren ekintzen esparru orokorra 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia da, eta 2021-2024 Enplegu Planean zehaztuko dira. Plan hori 2021ean hasi zen izapidetzen, eta 2022an onartuko da. Horrekin lotuta, egin nahi diren ekintzen orientabide orokor batzuk planteatzen dira; nolana ere, 2021-2024 Enplegu Planean ezarritako ildoen arabera zehaztuko dira.

7. politika. Ekintzailtza. Enpresa berriak

Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakundearteko Plana (2021-2024) zabaltzea, eta, horrekin lotuta, espiritu eta kultura ekintzailea sustatzeko ildoak ezartzea eta finantza- eta inbertsio-laguntzako tresnak hobetzea.

Planaren orientabideei jarraituz, ekimen nagusiak Euskadiko kultura ekintzailea indartzera zuzenduta egongo dira, eta enpresa berriak sortzea errazteko beharrezko baliabideak indartuko dira, autoenpleguko, ekintzailtzako eta intraekintzailtzako ekimenak babestuta. Horri dagokionez, ekintzailtza txikien garapena sustatuko da, ideia zehazten den unetik enpresa-proiektuak abian jartzen diren arte. Horrez gain, enplegua eta enpresa-jarduera bultzatzen duten toki-erakundeekin lankidetzan arituko da; ekintzailtza berritzailearen alde egingo da, eta ETE teknologiko berriak eta barne-ekintzailtzako proiektuak sortzen lagunduko da, laguntza ekonomikoen eta aholkularitza-zerbitzu espezializatuen bidez.

Gizarte-ekintzailtzari eta hurbiltasunari (lehen sektorea, merkataritza, turismoa, gizarte-ekonomia...) laguntza espezifikoa emango zaio, tokiko ekonomia suspertzeko dinamizatzaile gisa duen garrantziagatik.

8. politika. Enplegurako prestakuntza

2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiak «ekoizpen-sarera egokitzen den enplegu erresilientea» jasotzen du bere bektore estrategikoen artean, eta, aldi berean, honako hauetara bideratutako funtsezko estrategiak ditu: «prestakuntza eraginkorragoa eta produkzio-sarearen benetako beharrianetatik hurbilago dagoena, betiere bai lanbide-gaitasunak bai zeharkakoak garatzen baditu», eta «etengabeko ikaskuntza, funtsezko erantzun estrategiko gisa, egokitzeko gaitasun handia eskatzen duen aldaketa bizkorreko egoera baten aurrean».

Berpiztu 2022. Aurreikusitako ekintza nagusiak

Estrategia horiek berekin dakarte enplegurako prestakuntzan berrikuntzak egin beharra; gainera, enpresek gehiago parte hartu beharko dute bai premiak identifikatzean bai esperientzia-dinamiketan egiten duten ekarpenean. Hala, hobeto aprobetxatuko dute teleprestakuntzak duen ahalmena; lan-esperientziaren eta/edo prestakuntza ez-formalaren bidez eskuratutako lanbide-gaitasunen aintzatespena indartuko dute, eta talentua sortzen lagunduko duen funtsezko, zeharkako eta sormenezko gaitasunen kualifikazioa bermatuko dute. Horrez gain, enplegurako orientazio- eta laguntza-zerbitzuak pertsonalizatuko dira, prestakuntza laneratzeko ibilbide integralak diseinatzeko prozesuaren zatitzat hartuta eta enplegutik urrunen dauden pertsonen arreta berezia eskainita.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

2030erako Enpleguaren Euskal Strategiaren arabera, enplegu-politika aktiboak biztanleriaren eskubide subjektibo dira. Hori horrela, esku hartzeko sistema argi eta malgu baten alde egingo da, betiere ekoizpen-ehunaren beharrei azkar erantzuten badie eta pertsonen eta enpresen inguruan ez ezik, orientazioaren eta prospekzioaren inguruan ere oinarrizkoak diren zerbitzu gisa jarduten badu.

Laneratzeko laguntza bereziki garrantzitsua izan da –eta oraindik ere bada– COVID-19aren krisiak sortutako egoera sozioekonomikoan, susperraldi ekonomikorako aukerak enplegua sortzeko eta suspertzeko aukera bihurtzen saiatzeko. Testuinguru horretan, eta Enpleguaren Euskal Strategiaren orientazioari jarraituz, programa berritzaileen alde egingo da –etengabe ebaluatuko dira, haiengandik ikasi ahal izateko–, betiere laneratze-arazo handienak dituzten kolektiboetara zuzenduta badaude: gazteei; 45 urtetik gorakoei; iraupen luzeko langabeei; emakumei; desgaitasunen bat duten pertsonen, eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen.

Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen programak eginkizun garrantzitsua izaten jarraituko du bai toki-erakundeek eta enpresek enplegarritasuna hobetzeari dagokionez bai langabeak kontrata ditzaten sustatzeari dagokionez, egoera ahulenean dauden eremu eta udalerrietan (Meatzaldea, Ezkerraldea, Oarsoaldea eta Enkarterri) neurri espezifikoak ezarriko baitira. Era berean, enplegarritasun txikiagoa duten kolektibo espezifikoak kontratatzekeo pizgarrien alde egiten jarraituko da, bai eta enplegu-zentro berezien eta laneratze-enpresen funtzionamenduaren alde ere.

10. politika. Renove programa. Eraikinen birgaikuntza

Birgaitze- eta eraikitze-jardueren sustapenak garrantzi berezia izaten jarraitzen du, bai enplegua sortzeko duen gaitasunagatik bai eraikinen eta ekipamenduen energia-efizientziaren hobekuntzan duen eginkizunagatik, beharrezkoa baita Europako Itun Berdean eta Eusko Jaurilaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpenean 2050. urterako ezarritako karbono-emisioen neutraltasunerako Europako helburuan aurrera egiten jarraitzeko.

Horrela, etxebizitzaren birgaitze-programak, irisgarritasun-baldintzak eta energia-efizientzia hobetzeko programak eta osasun-zentroetako eta ikastetxe publikoetako azpiegiturak eta ekipamenduak birgaitzeko eta hobetzeko programak bultzatzen jarraituko da.

Berpiztu 2022. Aurreikusitako ekintza nagusiak

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak

Enplegu publikoak kalitatezko enplegua sortzea eta hobetzea sustatzen du; hori dela eta, sektorea enplegatzaile eraginkor eta efiziente gisa sendotzen jarraitzeko apustua egitearekin batera, 2022ko Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratuko da (ziurrenik, 4.065 plaza izango ditu). Honela banatuko dira plazak, ziurrenik: 1.100 administrazio orokorrean; 600 hezkuntzan; 2.000 osasunean; 290 segurtasunean, eta 75 justizian eta beste arlo batzuetan.

Zifra horiei dagokienez, kontuan hartu behar da, behin-behinekotasunari buruzko lege-proiektu berriak egonkortze-tasa 2022ko ekainaren 1era arte aplikatzeko ahalmena ematen duen heinean, egindako aurreikuspenak barne hartzen dituela proposatu daitezkeen egonkortze-eskaintzak.

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Gazteen enpleguarekiko konpromisoa 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian islatzen da, eta, era berean, 2021-2024 aldirako Enplegu Planaren funtsezko eremua izango da. Gauzatuko diren programek irismen handia izango dute; batez ere, gazteei lan-aukera gehiago ematera bideratutako ekimenak barne; horretarako, enplegua eta prestakuntza sustatzeko programak konbinatuko dira, eta arreta berezia eskainiko zaie kualifikazio gutxien duten edo eskola-porrotetik datozen gazteei. Ekimen horien artean hauek egongo dira, besteak beste: enpresetan kontratatze laguntza, gazteen ekintzailera, hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioko lehen esperientzia eta nazioartean esperientzia praktikoa lortzeko bekak. Laguntza-neurri horiekin batera, unibertsitateetan eta lanbide-heziketako zentroetan prestakuntza dualaren eredua eta gazteei zuzendutako enplegurako prestakuntza-ekintzak sustatzen jarraituko da.

2021-2024 aldirako Enplegu Planak ekimen horien ezaugarri nagusiak zehaztuko ditu, eta 2021ean aurrera egingo da 2022an hedatuko diren programa berritzaile batzuen diseinuan. Horrekin lotuta, honako hauek nabarmendu behar dira: Europako funtsen bitartez gazteak laneratzeko lagundutako ekimenak; administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionala izateko programa; Investigo programa, gazte ikertzaileak eta I+G+Baren arloko profila dutenak kontratatze, hala nola eremu sanitariokoak, datuen ingeniartzakoak, ekonomia berdekoak eta arlo sozial, kultural edo artistikokoak; eta berrorka eta ekitatea lortzeko proiektu pilotuak, Estatuko Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean.

7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak

Taula honetan, 2022rako aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta ekintzailletzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

7. politika. Ekintzailletza. Enpresa berriak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
MikroETEak eta autonomoak	26 M€	4.565	5 M€	860
Elikagaien sektoreko enpresa berriak	13 M€	1.245	3 M€	250
Gizarte-ekonomiako enpresa berriak	6 M€	747	3 M€	386
Turismo- eta merkataritza-sektoreko enpresa berriak	8 M€	913	5 M€	64
Enpresa berritzaile berriak	175 M€	3.320	22 M€	1.000
7. POLITIKA, GUZTIRA	128 M€	10.90	38 M€	2.560

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira. 2022an bultzaturako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).

8. politika. Enplegurako prestakuntza

Taula honetan, 2022rako aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegurako prestakuntzaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

8. politika. Enplegurako prestakuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
Lan-orientazioko programak	35 M€	16.600	8 M€	4.218
Nekazaritzako eta arrantzako trebakuntza-programak (elikadura-katea)	3 M€	519	0,8 M€	300
Kontratatze konpromisoa berekin duen prestakuntza	14 M€	1.245	3 M€	275
Langabeak laneratzeko prestakuntza	222 M€	23.736	49 M€	9.000
Landunak birziklatzeko prestakuntza	68 M€	*	21 M€	*
8. POLITIKA, GUZTIRA	342 M€	42.100	82 M€	13.793

(*) Birziklatze-programek enpleguan egonkortasun eta kalitate handiagoa dute, baina zuhurtasun-hipotesiengatik ez da aurreikusten enplegua zuzenean sortzea

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira. 2022an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).

3. oharra: Hasierako aurreikuspenean (2020-2024) enplegurako prestakuntzako jardueretan erabilitako laneratzeko-tasa, zuhurtzia-irizpideengatik, murriztaileagoa izan zen (% 25) kudeaketa-mandatutik eratorritakoa baino (% 45), eta hori erabili da 2022an enpleguan izango duen eragina kalkulatzeko, Hezkuntza Sailak eta Lan eta Enplegu Sailak emaitzen benetako esperientzian oinarrituta emandako jarraibideen arabera.

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak

Taula honetan, 2022rako aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta laneratzearen eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

9. politika. Laneratzea. Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
Tokiko eta eskualdeko enplegu-planak	174 M€	14.525	28 M€	2.000
Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak laneratzea	18 M€	1.245	4 M€	630
Iraupen luzeko langabeen laneratzea, sektore pribatuan kontratatzeko laguntzen bidez	6 M€	518	2 M€	150
Laneratzeoko programa espezifikoak enpresetan	58 M€	3.182	12 M€	758
Desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea enpresetan (kontratazio mugagaberako laguntzak + enplegu lagundua)	8 M€	830	2 M€	150
Enplegu-zentro bereziak	258 M€	*	65 M€	*
Laneratze-enpresentzako laguntzak	45 M€	*	10 M€	*
Lan- eta familia-bizitza erantzunkidetasunez uztartzeak eragindako enplegua	10 M€	5.810	2 M€	1.550
9. POLITIKA, GUZTIRA	577 M€	26.110	125 M€	5.238

(*) Programa horiek desgaitasuna eta laneratzeoko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enpleguaren egonkortasuna bermatzen dute, baina zuhurtziazat jo da ez dutela enplegu berririk sortzen modu esanguratsuan.

1. oharra: XII. legegaldirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira. 2022an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).



10. politika. Renove programa. Eraikinen birgaikuntza

Taula honetan, 2022rako aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta Renove programaren eta eraikinen birgaikuntza-programaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

10. politika. Renove programak. Eraikinen birgaikuntza	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
Renove Etxebizitzak	143 M€	10.269	32 M€	2.578
Renove Ikastetxeak	209 M€	3.752	64 M€	1.285
Renove Osasun-zentroak	54 M€	979	20 M€	398
10. POLITIKA, GUZTIRA	406 M€	15.000 (*)	116 M€	4.261

(*) Zenbatespena, biderkatzaileetan oinarrituta. Renove Etxebizitza programaren kasuan, 4 aldiz biderkatzen da inbertsio publikoa (laguntza publikoko 1 € gehi inbertsio pribatuko 3 €, jabe bakoitzeko), eta, kopuru horren gainean, 0,6ko biderkatzailea aplikatzen da soldatara (enpleguak) bideratutako zatia kalkulatzeko, eta zatiketa bat 30.000 euroko enpleguen batez besteko soldata kalkulatzeko. Renove Ikastetxeak eta Renove Osasuna programen kasuan, inbertsioa guztiz publikoa da; beraz, batez besteko lansaria eta soldata biderkatzaileak baino ez dira hartzen kontuan.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira. 2022an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak

Taula honetan, 2022rako aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta enplegu publikoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

11. politika. Enplegu Publikoaren Eskaintzak	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
Administrazio Orokorra	*	1.150	*	1.100
Osasuna	*	4.100	*	2.000
Ertzaintza	*	1.900	*	290
Hezkuntza	*	3.100	*	600
Justizia	*	320	*	50
Beste batzuk	*	150	*	25
11. POLITIKA, GUZTIRA	*	10.720	*	4.065

(*) Ez da aurrekontu-gasturik aurreikusten, Eusko Jaurlaritzaren I. kapitulu orokorrean (Langileak) sartuta daudelako.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira. 2022an bultzaturako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana

Taula honetan, 2022rako aurreikusitako aurrekontu-inbertsioen xehetasunak agertzen dira, bai eta gazteen enpleguarekiko konpromisoaren eremuan enplegua sustatzeko egindako ekarpena ere:

12. politika. Gazteen enplegua sustatzeko talka-plana	2020-2024 aldirako aurreikuspena		2022ko aurreikuspena	
	Inbertsioak	Enplegua	Inbertsioak	Enpleguak
Enplegurako prestakuntza duala	*	11.990	*	2.653
Hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko programak	14 M€	3.280	3 M€	736
Gazteen enplegurako prestakuntza-bekak	42 M€	1.936	12 M€	514
Gazteak laneratzeko prestakuntza	18 M€	2.728	5 M€	1.450
Gazteen enplegurako programak: Lehen Aukera, Errelebo Kontratua, Gazteen Itzulera eta Gazteak gizarteratzeko ekintza berritzaileak	65 M€	4.150	11 M€	1.160
Gazteen ekintzailletza	23 M€	1.716	4 M€	450
12. POLITIKA, GUZTIRA	162 M€	25.800	35 M€	6.963

(*) Aurrekontua ez da sartu, LHko eta Unibertsitateko langileen gastuen kapituluan sartuta dagoelako.

1. oharra: XII. legealdirako (2020-2024) kalkulaturako aurrekontu aurreikusien datuak, 2020an % 50eko egozpena eginda.

2. oharra: II. ardatzerako (Enplegua sortzea) 2022ko datuak gobernuaren «Gainegiturei buruzko 210 txostena – Enplegu Plana» txostenekoak dira. 2022an bultzatutako enpleguaren zenbatespena Berpiztu Programan egindako aurreikuspenean oinarritzen da (sailek ondoren berrikusi eta eguneratu dute).





ONDORIOAK



ONDORIOAK

1. Berpiztu Programaren helburu nagusia da langabezia-tasa % 10etik beherakoa izatea legegintzaldian zehar. 2021eko azken lauhilekoan, langabezia-tasa %9,9koa zen BJAREN arabera. Norabide onean gaude, baina Ukrainaren inbasioak 2022ko otsailean eragindako inpaktu negatiboak kontuan hartu behar dira.
2. Berpiztuk Jaurlaritzak onartutako aurrekontuetako inbertsioak jasotzen ditu. Ahalegin endogeno horrek, Next Generation Europako Funtsen inbertsioekin batera, erronka digitalari, energia-erronkari eta osasun-erronkari aurre egiteko funtsezko proiektu eragileak abian jartzea ahalbidetuko du. Euskadiren etorkizuna hurrengo belaunaldientzat markatuko duten hiru erronka.
3. Berpiztu programaren barruan, bereziki nabarmentzen dira Enpleguaren ardatzean garatutako jarduerak, bereziki honako programa hauek: ekintzailletza, enplegurako prestakuntza, laneratzeko programak eta tokiko eta eskualdeko enplegu-planak. Eraikin publikoak eta etxebizitza pribatuak birgaitzeko Renove programak. Onartutako lan-eskaintza publikoak eta Gazteen Talka-Plana.

ONDORIOAK

4. 2021eko abendura arte metatutako inbertsioa 5.190 M€-koa izan da, eta 52.434 enplegu eragin dira, horietatik 8.000 gazte.
5. 2022. urte honetan, Berpiztu Programak guztira 3.210 M€-ko inbertsioa aurreikusten du, aurrekontu-inbertsioak eta inbertsio pribatua dinamizatzeko irekitako abal-lerroak kontuan hartuta.
6. Inbertsio horrek eragin positiboa izango du 2022an sustatutako 36.800 lanpostu berritan ebaluatutako enpleguan. Hala ere, hasierako aurreikuspen horiek Ukrainako Errusiar inbasioak eragindako ondorio ekonomiko eta sozial negatiboen baldintzapean egon daitezke.
7. 2020-2021-2022 gauzatzeko hiru urteetan 8.400 M€-ko inbertsio metatua egingo da, hau da, programa osorako aurreikusitako inbertsio osoaren 2/3 gutxi gorabehera (13.250 M€). Aldi horretan sustatuko diren enpleguak 89.000 pertsona ingurukoak izango dira, **baina Ukrainako gerraren eragin negatiboek baldintzatuko dituzte aurreikuspen horiek**. Helburua enplegu-tasa % 10etik beherakoa izatea da.

